

“Ulisesen Bidaia' oso talde lan neurtua da; polita da egiteko eta are politagoa ikusteko”



Aritza Rodriguez Foruria
Antzezlea • 16

Mural kolektiboa margotuko dute, gaur, Berrizen gertatutako eraso matxista gaitzesteko

Berriz | Domekan emakume batek eraso matxista salatu ostean, Francisco del Pino zinegotzi sozialista atxilotu zuten ustezko erasotzaile lez • 4



"Ama izateagatik diskriminatu nautela onartu dute, baina lanik barik geratu naiz"

Ama izan ostean, “sexuaren arabera diskriminazioa” jasan du Janirek. Hala onartu diote auzitegiek, eta kalte-ordaina ordainduko dio Zornotzako Abrasivos Texajax enpresak. Pozik dago, baina lanpostua galdu du. LABek Lan Ikuskaritzan salatu du enpresa • 2-3



LENIOR ELORRIAGA

Jihadismoagaz lotuta, gazte bat atxilotu dute

Durangaldea | Polizia Nazionalak gazte bat atxilotu zuen martitzenean Traña-Matienan, jihadismoagaz lotutako operazio batean. Durangon, berriz, etxe bat miatu zuten atxilotuaren aurrean.

8. orrialdean



ALKIMAX
Alquilamos soluciones

BERRIZ Eitua Industriagunea, 71C - Tel.: 946 824 550
GERNIKA Goiko Ibarra, 26 - Tel.: 946 271 310
alkimax@alkimax.net
www.alkimax.net



ESKURATZE BERRIAK



ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Epaitegien esanak zapore gazi-gozoa utzi dio Janireri (Zonotza, 1988). Ama izateagatik "diskriminatu" egin dutela onartu dute, baina bost urtez egin duen administrari lana utzi behar izan du. Herritarren partetik izan duen babesa irribarre zabalagaz eskertu du; baina, oraindik ere, negarra eragiten dio ama izateagatik sufrutatakoak eragindako inpotentziak.

Diskriminatu egin zaituztela onartu du epaileak eta kalte moralengatik indemnitatzeko zaituzte. Nola hartu duzu epaia?

Oso txarto pasatu nuen epaiketean, pentsatuz egindako guztiak ez duela ezertarako balio. Baina, azkenean, epaileak aitortu du oinarriko eskubideak urratu direla, haurdun egon naizelako kaleratu nautela, diskriminatu egin nautela. Hala ere, ez da frogatuta geratu laneko baja horregatik hartu behar izan dudala; antsietateagatik nago bajan. Epaia gazi-gozoa izan da. Ama izateagatik diskriminatu naute, epaiak arrazoa ematen dit, baina lanik barik geratu naiz.

Haurdun geratzeagaz batera hasi ziren arazoak enpresagaz?

Bai. Oso goiz esan nuen enpresan haurdun nengoela eta, otitis baten ondorioz, apurtuta zegoen kristal bat konpontzeko eskatu nuen; fabrikazo enpresa izanik, mutuara joatea ere eskatu nuen, lanpostuaren arriskua ikusteko. Ezetza eman zidaten, eta kristala konpontzeko ere arazoak izan nituen. Lehenago edo geroago baja hartuko nuela-eta, ordezko bat hartzeko ere arazoak izan genituen. Azkenean, nagusiak bere lagun bat eta iloba hartu zituen. Ez zuten formakuntzarik, eta hasieratik erakutsi behar izan nien dena. Hartu egin nuen baja, eta arazorik ba ote zegoen jakiteko deitu ere egiten nuen hasieran.

Semea jaio ostean, arazoekin jarraitu zenuen?

Bai. Ekainean jaio zen, eta irailean nagusiarri deitu nion. Abuztuko oporrerrez, bularra emateko epealdiaz, murrizketa hartzeko aukeraz... hitz egin gura nuen enpresagaz, inolako erabakirik hartu barik nuelako eta alde biak moldatu ahal izateko. Hala ere, egunek aurrera egin ahala, ez nuen inolako berririk, eta berriro lanean noiz hasi behar nuen jakin gura nuen. Lasai egoteko esaten zidaten, baina ezer ez jakiteak segurtasunik eza sortu zidan. Azkenean, azaroan lortu nuen batzartzea.

Nola joan zen batzar hori?

Susmoekin joan nintzen, eta elkarrizketa mugikorrean grabatu nuen, informazio guztia argi izateko. "Zer proposatzen dizugu?" hori da esan zidaten lehenengo gauza. Bakoitzaren premiak ikusi eta nola konpondu gintezkeen jakin gura nuen. Ez nuen ezer erabakita eta eurekin adostu gura nuen dena.

"Prosezu oso gogorra izan da, baina txarragoa izango zen ezer egin ez banu"

Abrasivos Texajax enpresak ama izateagatik Janire "diskriminatu" egin duela ebatzi dute epaileek. Epaia irmoa da.



LEHIUR ELORRIAGA

Biontzat onena lortzeko. Baina enpresan niretzat lekurik ez zutela esan zidaten, nigan konfiantza galdu zutela. Neure lanpostua zela esan nien, baina kitatze-agiria hartu eta langabeziara joateko esan zidaten. Nik lan egin gura nuen, ez nuen langabeziara joan gura. Dirua hartzeko esan zidaten; bestela, dirua eta osasuna galduko nituela, ez zidatela lanpostua gordeko...

Urtarrilean bueltatu zinen lanera.

Bai. Hiru egunean eutsi nion. Orde-nagailu eramangarri batez, gela batean neu bakarrik, isolatuta, eta emandako lanerako beharrezkoa nuen informaziorako inolako sarbiderik barik. Nire ordezkoak zirenei

“

Nire kasua bakarra zela uste nuen, baina enpresan gertatu zaidana kontatzerakoan ikusi dut zein ohikoa den

”

enpresako datuak eskatu behar izaten nizekin. Oso baztertuta sentitu nintzen, jarrera oso bortitza izan zuten nigan. Aurretik oso ohikoak ziren gauzak bat-batean ezin nituen egin.

Jazarpena jasan duzula onartu du epaileak?

Jasandako tratuagatik lanera bueltatzea ezinezkoa egiten zaidala onartu du epaileak; horretan arrazoa eman dit, eta enpresagaz kontratua eteteko aukera ematen dit. Bestela, baliogabeko kaleratzea izan dela esango luke eta lanean hasi beharko nuke berriz. Egoera horretan, eta haurdun nengoela esan nuenetik bizi izan dudana, lanera bueltatzerik ez dudala onartu du. Argi eta garbi geratu da nagusiagatik dagoela harremana dagoen moduan, eta ez nigatik.

Errudun sentitu zara?

Ez. Inpotentzia sentitu dut. Inpotentzia handia, lanera bueltatu nintzanean gehiago eutsi behar niola uste nuelako. Baina, ezin izan nuen. Nire sentsazioa zen ez zuela merezi.

Erbakia hartuta zutela uste nuen, eta dena ondo egin arren ez nuela inoiz nire lanpostua berreskuratuko. Gela hartan lehertu artean edukiko nindutela, eta pentsatu nuen "zertarako txarto pasatu? Ez du merezi". Azaroan izan nuen batzarretik, mehatxuak jasan nituen momentutik, antsietate handiagaz bizi izan nuen lanera bueltatzea.

Uste baino ohikoagoa da zuk bizi izan duzun egoera hau?

Aste honetan bertan neska bat hurbildu zait, eta orain sei urte egoera berdina jasan zuela esan dit. Azkenean, eman behar ziotena baino diru apur bat gehiago eskaini ziotela esan dit, eta hartu

“

Bizitzako momenturik onena zapuztu didatela sentitu dut, eta ez nuen gura besoak gurutzatuta geratu

”

egin zuela. Horrela amaitzen dute askok eta askok. Gehienak ez dira epaiketara heltzen. Ama izan berri zarenean, bizi duzun ahultasun egoera horretaz aprobetxatzen dira enpresariak: lo egin barik, nekatuta, lanera joateko haur hain txikia haurreskolan uzteak sortu ditzakeen kontraesanekin... Nire kasuan ere horrela izan dela uste dut.

Harritu egin zaitu?

Haurdun daudela esandakoan, askori kaleratzea negoziatzea eskaintzen diete. Ez direla lanera itzuliko esaten diete. Piloa daude egoera horretan. Nirea kasu bakarra zela uste nuen, baina niri gertatutakoa kontatzerakoan ikusi dut zein ohikoa den, Bizitzako momenturik onena zapuztu didatela sentitu dut, eta ez nuen gura besoak gurutzatuta geratu.

Horregatik erabaki zenuen salaketa jartzea? Erabaki zaila izan zen?

Bai. Prozesu oso gogorra izan da, baina, niretzat txarragoa izango zen ezer egin ez banu. Nik nire lan-

postua gura nuen eta, aurretik, saiatu nintzen erakusten lehengo modukoa nintzela, lanerako borondatea nuela. Bitartekari lana ere egin zuen sindikatuak abenduan, baina ez zuen ezer lortu. Urtarrilean lan egin nituen hiru egun horien ostean, argi izan nuen. Egin behar nuena egin dut eta epaileak arrazoa eman dit. Hori oso lagungarria izan da.

Eta nola bizi izan duzu egoera hori publiko egitea?

Lotsatia naiz eta oso txarto pasatu dut. Baina egin beharreko zerbait dela uste dut. Ezagutzera eman behar da halakoak gertatzen direla eta ezin dela onartu. Zerbait aldatzen saiatu gura izan dut.

Uste duzu zure kasuak beste emakume batzuei lagunduko die?

Baietz espero dut. Hala ere, bakoitzaren erabakia da salaketa jarri ala ez.

Herriaren babesa izan duzu. Nola bizi izan duzu hori?

Babes itzela jaso dut, bai. Piloa eskertzen dut. Mugimendu feministak lan handia egin du eta herriaren babes handia sentitu dut. Egia da herri txikia dela Zonotza, eta gogorra da denen ahotan egotea. Baina pilo eskertzen da.

Lan ikuskaritzara eramango du LA-Bek gai hau. Nola ikusten duzu?

Ondo. Nik egin behar nuena egin dut. Horretatik nik ez dut ezer jasotzen, baina uste dut enpresak zigorra jaso behar duela. Nire kasuan, enpresak hasiera batean gura zuena lortu du, nik dirua hartzea eta lanpostua uztea, eta, azkenean, lortu dute. Epaiketa bat dela medio, baina diru bat eman didate eta lanpostua utzi dut.

Auzitegietan genero ikuspuntua lantzea behar den ustea zabaldu da. Ados zaude horregaz?

“

Enpresak hasiera batean gura zuena lortu du, nik dirua hartzea eta nire lanpostua uztea

”

Ama izan ostean, emakumeak baja hartzen duela-eta, lanaldia murrizten duela-eta... enpresak langile hori alboratu gura izatea txarto ez dagoen ustea oso barneratuta dago gizartearen, auzitegiaren, denongan. Ez dago ondo, baina... enpresaren onuran pentsatu behar dutenez, nolabaiteko normaltasunez hartzen da.

Eta orain?

Orain osatu beharra daukat. Denbora behar dut oraindik. Seguruenik, ikasten hasiko naiz. Administrazioa naiz eta gustatzen zait nire lana, baina baldintzatuta sentitzen naiz.



Tex
LAB

LAB sin
izateaga

ZORNOTZA

Zornotza enpresare du LAB sin tzan, "diskriminatu" direla ustea onesten k borroka "LABek eg rraldian.

Janire diskriminatu epaiak, "oinarritik dizkiotela.



ZORNOTZA • AITZIBER BASAURI

Epaitegien esanak zapore gazi-gozoa utzi dio Janireri (Zonotza, 1988). Ama izateagatik "diskriminatu" egin dutela onartu dute, baina bost urtez egin duen administrari lana utzi behar izan du. Herritarren partetik izan duen babesa irribarre zabalagaz eskertu du; baina, oraindik ere, negarra eragiten dio ama izateagatik sufrutatakoak eragindako inpotentziak.

Diskriminatu egin zaituztela onartu du epaileak eta kalte moralengatik indemnitatzeko zaituzte. Nola hartu duzu epaia?

Oso txarto pasatu nuen epaiketean, pentsatuz egindako guztiak ez duela ezertarako balio. Baina, azkenean, epaileak aitortu du oinarritzko eskubideak urratu direla, haurdun egon naizelako kaleratu nautela, diskriminatu egin nautela. Hala ere, ez da frogatuta geratu laneko baja horregatik hartu behar izan dudala; antsietateagatik nago bajan. Epaia gazi-gozoa izan da. Ama izateagatik diskriminatu naute, epaiak arrazoa ematen dit, baina lanik barik geratu naiz.

Haurdun geratzeagaz batera hasi ziren arazoak enpresagaz?

Bai. Oso goiz esan nuen enpresan haurdun nengoela eta, otitis baten ondorioz, apurtuta zegoen kristal bat konpontzeko eskatu nuen; fabrikazo enpresa izanik, mutuara joatea ere eskatu nuen, lanpostuaren arriskua ikusteko. Ezetza eman zidaten, eta kristala konpontzeko ere arazoak izan nituen. Lehenago edo geroago baja hartuko nuela-eta, ordezko bat hartzeko ere arazoak izan genituen. Azkenean, nagusiak bere lagun bat eta iloba hartu zituen. Ez zuten formakuntzarik, eta hasieratik erakutsi behar izan nien dena. Hartu egin nuen baja, eta arazorik ba ote zegoen jakiteko deitu ere egiten nuen hasieran.

Semea jaio ostean, arazoekin jarraitu zenuen?

Bai. Ekainean jaio zen, eta irailean nagusiarri deitu nion. Abuztuko oporrerrez, bularra emateko epealdiaz, murrizketa hartzeko aukeraz... hitz egin gura nuen enpresagaz, inolako erabakirik hartu barik nuelako eta alde biak moldatu ahal izateko. Hala ere, egunek aurrera egin ahala, ez nuen inolako berririk, eta berriro lanean noiz hasi behar nuen jakin gura nuen. Lasai egoteko esaten zidaten, baina ezer ez jakiteak segurtasunik eza sortu zidan. Azkenean, azaroan lortu nuen batzartzea.

Nola joan zen batzar hori?

Susmoekin joan nintzen, eta elkarrizketa mugikorrean grabatu nuen, informazio guztia argi izateko. "Zer proposatzen dizugu?" hori da esan zidaten lehenengo gauza. Bakoitzaren premiak ikusi eta nola konpondu gintezkeen jakin gura nuen. Ez nuen ezer erabakita eta eurekin adostu gura nuen dena.

"Prosezu oso gogorra izan da, baina txarragoa izango zen ezer egin ez banu"

Abrasivos Texajax enpresak ama izateagatik Janire "diskriminatu" egin duela ebatzi dute epaileek. Epaia irmoa da.



Biontzat onena lortzeko. Baina enpresan niretzat lekurik ez zutela esan zidaten, nigan konfiantza galdu zutela. Neure lanpostua zela esan nien, baina kitatze-agiria hartu eta langabeziara joateko esan zidaten. Nik lan egin gura nuen, ez nuen langabeziara joan gura. Dirua hartzeko esan zidaten; bestela, dirua eta osasuna galduko nituela, ez zidatela lanpostua gordeko...

Urtarrilean bueltatu zinen lanera.

Bai. Hiru egunean eutsi nion. Orde-nagailu eramangarri batez, gela batean neu bakarrik, isolatuta, eta emandako lanerako beharrezkoa nuen informaziorako inolako sarbiderik barik. Nire ordezkoak zirenei

"Nire kasua bakarra zela uste nuen, baina enpresan gertatu zaidana kontatzerakoan ikusi dut zein ohikoa den"

enpresako datuak eskatu behar izaten nizekin. Oso baztertuta sentitu nintzen, jarrera oso bortitza izan zuten nigan. Aurretik oso ohikoak ziren gauzak bat-batean ezin nituen egin.

Jazarpena jasan duzula onartu du epaileak?

Jasandako tratuagatik lanera bueltatzea ezinezkoa egiten zaidala onartu du epaileak; horretan arrazoa eman dit, eta enpresagaz kontratua eteteko aukera ematen dit. Bestela, baliogabeko kaleratzea izan dela esango luke eta lanean hasi beharko nuke berriz. Egoera horretan, eta haurdun nengoela esan nuenetik bizi izan dudana dagoen moduan, eta ez nigatik.

Errudun sentitu zara?

Ez. Inpotentzia sentitu dut. Inpotentzia handia, lanera bueltatu nintzanean gehiago eutsi behar niola uste nuelako. Baina, ezin izan nuen. Nire sentsazioa zen ez zuela merezi.

Erbakia hartuta zutela uste nuen, eta dena ondo egin arren ez nuela inoiz nire lanpostua berreskuratuko. Gela hartan lehertu artean edukiko nindutela, eta pentsatu nuen "zertarako txarto pasatu? Ez du merezi". Azaroan izan nuen batzarretik, mehatxuak jasan nituen momentutik, antsietate handiagaz bizi izan nuen lanera bueltatzea.

Uste baino ohikoagoa da zuk bizi izan duzun egoera hau?

Aste honetan bertan neska bat hurbildu zait, eta orain sei urte egoera berdina jasan zuela esan dit. Azkenean, eman behar ziotena baino diru apur bat gehiago eskaini ziotela esan dit, eta hartu

"Bizitzako momenturik onena zapuztu didatela sentitu dut, eta ez nuen gura besoak gurutzatuta geratu"

egin zuela. Horrela amaitzen dute askok eta askok. Gehienak ez dira epaiketara heltzen. Ama izan berri zarenean, bizi duzun ahultasun egoera horretaz aprobetxatzen dira enpresariak: lo egin barik, nekatuta, lanera joateko haur hain txikia haurreskolan uzteak sortu ditzakeen kontraesanekin... Nire kasuan ere horrela izan dela uste dut.

Harritu egin zaitu?

Haurdun daudela esandakoan, askori kaleratzea negoziatzea eskaintzen diete. Ez direla lanera itzuliko esaten diete. Piloa daude egoera horretan. Nirea kasu bakarra zela uste nuen, baina niri gertatutakoa kontatzerakoan ikusi dut zein ohikoa den, Bizitzako momenturik onena zapuztu didatela sentitu dut, eta ez nuen gura besoak gurutzatuta geratu.

Horregatik erabaki zenuen salaketa jartzea? Erabaki zaila izan zen?

Bai. Prozesu oso gogorra izan da, baina, niretzat txarragoa izango zen ezer egin ez banu. Nik nire lan-

postua gura nuen eta, aurretik, saiatu nintzen erakusten lehengo modukoa nintzela, lanerako borrodatea nuela. Bitartekari lana ere egin zuen sindikatuak abenduan, baina ez zuen ezer lortu. Urtarrilean lan egin nituen hiru egun horien ostean, argi izan nuen. Egin behar nuena egin dut eta epaileak arrazoa eman dit. Hori oso lagungarria izan da.

Eta nola bizi izan duzu egoera hori publiko egitea?

Lotsatia naiz eta oso txarto pasatu dut. Baina egin beharreko zerbait dela uste dut. Ezagutzera eman behar da halakoak gertatzen direla eta ezin dela onartu. Zerbait aldatzen saiatu gura izan dut.

Uste duzu zure kasuak beste emakume batzuei lagunduko die?

Baietz espero dut. Hala ere, bakoitzaren erabakia da salaketa jarri ala ez.

Herriaren babesa izan duzu. Nola bizi izan duzu hori?

Babes itzela jaso dut, bai. Piloa eskertzen dut. Mugimendu feministak lan handia egin du eta herriaren babes handia sentitu dut. Egia da herri txikia dela Zornotza, eta gogorra da denen ahotan egotea. Baina pilo eskertzen da.

Lan ikuskaritzara eramango du LAB-Bek gai hau. Nola ikusten duzu?

Ondo. Nik egin behar nuena egin dut. Horretatik nik ez dut ezer jasotzen, baina uste dut enpresak zigorra jaso behar duela. Nire kasuan, enpresak hasiera batean gura zuena lortu du, nik dirua hartzea eta lanpostua uztea, eta, azkenean, lortu dute. Epaiketa bat dela medio, baina diru bat eman didate eta lanpostua utzi dut.

Auzitegiatan genero ikuspuntua lantzea behar den ustea zabaldu da. Ados zaude horregaz?

"Enpresak hasiera batean gura zuena lortu du, nik dirua hartzea eta nire lanpostua uztea"

Ama izan ostean, emakumeak baja hartzen duela-eta, lanaldia murrizten duela-eta... enpresak langile hori alboratu gura izatea txarto ez dagoen ustea oso barneratuta dago gizartearen, auzitegiaren, denongan. Ez dago ondo, baina... enpresaren onuran pentsatu behar dutenez, nolabaiteko normaltasunez hartzen da.

Eta orain?

Orain osatu beharra daukat. Denbora behar dut oraindik. Seguruenik, ikasten hasiko naiz. Administrazioa naiz eta gustatzen zait nire lana, baina baldintzatuta sentitzen naiz.

Tex
LAB

LAB sin
izateaga

ZORNOTZA

Zornotza enpresare du LAB sin tzan, "diskriminatu" direla ustean k borroka "LABek eg rraldian.

Janire diskrimin epaiak, "oinarritz dizkiotel.



Mural kolektiboa margotuko dute domekan gertatutako eraso matxista gaitzesteko

2011z geroztik Berrizen zinegotzia den Francisco del Pino domekan atxilotu zuten eraso matxista egitea leporatuta



Eguazten arratsaldeko elkarretaratzea egin zuten Berrizen.

BERRIZ • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Domeka gauean emakume bati eraso egin zioten Berrizen. Emakumeak jarritako salaketaren ostean, Francisco del Pino Berrizko PSE-EEko zinegotzia atxilotu zuten

Ertzaintzak, eraso matxistaren us-
tezko egile lez.

Eraso horren aurrean, 2011z geroztik Berrizen zinegotzi sozialista denari, Bizkaiko PSE-EEK dimititzeko eskatu zion eta honek alderdiari

Francisco del Pino zinegotzi sozialistari dimititzeko eskatu dio PSE-EE alderdiak

baiezkoa eman zion. Hala ere, pauso hori ez da oraindik ofizial egin, ANBOTOK egunean erredakzioa itxi aurretik ez, behintzat. "Zinegotziak bere errugabetasuna defendatu du. Baina dimititzeko eskatu

diogu eta baiezkoa eman digu", adierazi dute Bizkaiko PSE-EEko kideek.

Bestalde, Berrizko EAJko eta EH Bilduko zinegotziek erabateko gaitzespena azaldu dute mota guztietako biolentzia matxisten aurrean, eta eraso salatu duen emakumearek euren elkartasuna adierazi diote. Horrez gain, genero indarkeriaren aurrean "zero tolerantzia" edukiko dutela adierazi dute.

Erasoaren aurrean, EAJ eta EH Bilduko zinegotziek erabateko gaitzespena azaldu dute

Elkarretaratze jendetsua egin zuten eguaztenean udaletxe aurrean, eraso matxista salatzen

Murala Berrizen

Gaur mural kolektiboa margotuko dute, Ganeko ondoan, 18:00etan, eraso gaitzesteko. Eguazten arratsaldean elkarretaratzea egin zuten herritarrek, eraso salatzen. Azeri Gorriak talde feministak egindako deiari erantzunez, hainbat berriztar batu ziren udaletxe aurrean.

Nekazaritza-lurren eta eskola jantokien gaiak aztertuko dituzte Oinak Lurrean jardunaldian

Esperientziak ezagutu eta eskualderako balio dezaketen aztertzea da ekimenaren helburua

DURANGALDEA • MARKEL ONAINDIA

Maiatzaren 24an Oinak Lurrean jardunaldiaren bigarren edizioa hartuko du Plateruenak, Amankomunazgoaren eta Urkiola Landa Garapeneren eskutik. 2016an lurralde garapena era orokor batean landu eta gero, aurtengo aldiari nekazaritza-lurren antolaketa eta eskola jantokien gaia aztertuko dituzte. Izena hilaren 21era arte eman ahal da.

Bestelako esperientziak ezagututa eta elkarregaz hausnartuta, eskualdean etorkizuneko di-

Margarita Hernandezek Kanaria uharteetan duten Ekojangelak programa aurkeztuko du

namiketarako balio dezaketen ikustea da helburua, Aitor Lopez Amankomunazgoko presidentea eta Endika Jaio Urkiola Landa Garapenerako presidentea eguazteneko aurkezpenean esan zuten bezala. Goizean, esaterako, Baix Llobregateko

(Herrialde katalanak) Nekazaritza Parkearen berri emango du Josep Montasellek. Gero, Leire Milikuak eta Sergio Gallegok lurra babestea eta gestioatzea berba egingo dute, eta Gaindegia Imanol Esnaolak udalerrien beharrez.

Arratsaldean, erkidegoko jantokien egoera jorratuko du Euskal Herriari Bidezko Elikadura erakundeko Eneko Viñuelak, eta Margarita Hernandezek Kanaria uharteetan duten Ekojangelak programa aurkeztuko du.



Amankomunazgoko eta Urkiola Landa Garapenerako ordezkariak, aurkezpenean.

anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215 Iurreta - Bizkaia
Tel.: 946 816 558
Erredakzioa: 946 232 523
Publizitatea: 946 217 902
publi@anboto.org

2018ko maiatzaren 11a
16. urtea - 720. alea

Lege gordailua:
BI-2268/01
ISSN:
1578-7028
Tirada:
11.500 ale



Bizkaia
foru aldundia
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du



EUSKO JAURLARITZA

GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLITICA LINGÜÍSTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

Eibar futbol kluba hainbat toki aztertzen dabil kirol azpiegitura berriak eraikitzeko eta Areitio gaina da horietako bat

Eibar klubak buruan darabilen aukeretako bat Mallabiko lurretan dago, sasoi bateko jatetxearen inguruko lur sailetan



Sasoi bateko jatetxearen inguruko lursail batzuetan egingo lirateke kirol instalazioak.

MALLABIA • JOSEBA DERTEANO

Eibar futbol klubak kirol azpiegitura berriak egin gura ditu eta kokapenik aproposenaren bila dabil. Hainbat toki aztertzen ari da eta horietako bat Mallabian dago: Areitio gainean, sasoi bateko Esparru tabernaren inguruko lursail pribatu bat, hain zuzen. Sei hektarea ingururi eragingo lioke.

Landa-zoru moduan izendatuta dagoen lur zatia da eta mota horretako lurrek kirol ekipamen-

Landa-zoru moduan izendatuta dagoen lur zatia da eta kirol azpiegiturak har ditzake

duak har ditzakete. Igor Agirre alkateak azpimarratu du gai honegaz "zuhurtziaz" jokatu gura dutela, momentuz "beste hainbaten artean dagoen aukera bat bakarrik" delako, eta Eibarrek ematen dituen pausoen "zain" daudela. Gainera, lur pribatuak direla gogoratu du. Asmoa azkenean errealtate bihurtzen bada, Mallabiarentzat "albiste itzela" izango litzatekeela azaldu du.

Egoitza nagusia Mallabian duen Orbea bizikleta enpresa ere urte

Alkatearen ustez, asmoa errealtate bihurtzea "albiste itzela" izango litzateke Mallabiarentzat

batzuen buruan bere azpiegiturak handitzea pentsatzen ari da. Kokapen posibleen artean, Areitio gaineko lur batzuk daude. Baina ez dute zerikusirik Eibar futbol klubekeo lurrekin. "Beste lur batzuk dira", zehaztu du Agirrek.

Hondakinen esleipen prozedura azken txanpan sartuta dago

Txosten teknikoa prest dagoenean, kontratazio mahaira deitu eta azken gutunazala zabalduko du Gipuzkoako Aldundiak



Betearte da Gipuzkoako lehiaketara aurkeztu den enpresa bakarra.

MALLABIA • J.D.

Gipuzkoako hondakinak Betearteri esleitzea ekarriko lukeen prozedura azken txanpan sartuta da. Betearteren proposamen teknikoa jasotzen zuen bigarren gutunazala zabaldu ostean, proposamen hori aztertzen eta txosten tekniko bat egiten ari dira. Hori prest dagoenean, Aldundiak kontratazio mahaira deitu eta hirugarren gutunazala zabalduko du. Azken gutunazalak proposamen ekonomikoa jasotzen du.

Beraz, iraunkortasun eta ingurune naturaleko diputatu Elena Unzuetak Bizkaiko Aldundian

oraintsu egindako eskaintzak ez du momentuz eraginik izan. Bazar Nagusietako batzorde batean elkarrizketarako deia egin zion

Gipuzkoak dio oraindik ez duela elkarrizketarako eskaera formalik jaso Bizkaiairen partetik

Gipuzkoako Aldundiari. Azken erakunde horretako iturriek diote oraindik ez dutela ildo horretako eskaera formalik jaso.

Mondragon Unibertsitatea

GURE IKASLEEN AHOTAN

“Denok denengatik ikasten dugu”

Jon Iraurgi (21 urte, Durango) Lidergo Ekintzaile eta Berrikuntzan graduako (LEINN) 4. maila ikasten ari da Mondragon Unibertsitatean.

-Zergatik aukeratu zenuen LEINN Gradua? Eta zergatik Mondragon Unibertsitatean? Argi neukan Mondragon Unibertsitatean egin nahi nuela nire gradua, formazioa emateko duen era desberdinagatik, eta enpresa mundutik gertu-gertu dagoelako. Horretaz aparte, LEINN gradua estatu mailan dagoen lidergoa, ekintzailetza eta berrikuntza inguruko gradu bakarra da eta, nire ustez, gaur egun oso garrantzitsua da besteengandik bereiztea.

- Nola balioetsiko zenuke orain arte bizitako esperientzia? LEINN graduan bizitako esperientziengatik, eta bertan egonda garatu ditugun talde proiektuengatik, profesional moduan baino, graduak pertsona moduan hasteko aukera eman dit. Lehen egunean elkartu gintuzten 14 lagunekin batera, Koren enpresa sortu genuen, bizitzan egin dudana gauza aberasgarrirenetako.

- Nola definituko zenuke Enpresa-gintzan jasotzen duzun ikasteko metodologia eta zehazki LEINNen? Talde-lana eta Finlandiatik datarren “Learning by doing” metodologia dira gure ikaste moduren ardatzak.

- LEINN graduak praktikotasuna du ezaugarritzat, eta baita internazionalizazioa ere. Zure kasuan nola bizi izan dituzu bi ezaugarri hauek? Praktikotasuna, Koren enpresa

sortzean ikasi nuen. Bestalde, urtero bidaiak egin ditugu, Finlandia, San Francisco, India eta Txinara, eta bertan proiektu batzuk garatu genituen. Nire kasuan, kafearen inguruko merkatu ikerketak egin nituen, estatu mailako enpresa batentzat, eta egia esan, asko ikasi nuen.

- Orain dela gutxi Gradu Amaierako Proiektua hasi zara? Non da, eta zertan? Apirilean nire gradu bukaerako lana hasi nintzen Kirolbet enpresan, Eibarren. Kirolbetek kirol apustuak egiteko zerbitzua saltzen du eta bertan, nire proiektua barne eta kanpo bezero esperientziaren inguruan diagnostiko bat sortzea izango da.

Arreta gune handiagoa eta argitsuagoa izango dute udaltzaingoaren azpiegitura eraberrituek

Urteko azken hiruhilekoan udaltzaingoaren bulegoak berrizteko lanak hasiko dituzte, 315.000 euroko aurrekontuagaz

ZORNOTZA • JOSEBA DERTEANO

Udaltzaingoaren azpiegiturak eraberrituko ditu udalak. Itxura aldaketa "integrala" izango da, Andoni Agirrebeitia alkateak nabarmendu duenez. Aldaketen helburuetako bat herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua hobetzea da eta, ildo horretatik, arreta gunea handitu egingo dute.

Gaur egungo arreta guneak zazpi metro karratu ditu eta berriak 15

arduradunek azaldu dutenez, sasoi batean autobus geltoki bat egiteko funtzioagaz egin zuten eraikina, nahiz eta sekula ez zitzaion erabilpen hori eman. Horregatik du bobeda itxurako teilatua.

Sarrerak eta aldagelak

Sarrera nagusia espaloien parera ekarriko dute, mailak eta arrapala kenduta. Atearen inguruan U-Glass izeneko beira jarriko dute eta sarrera osoa argitsuagoa izango da.

Udaltzainek aldagela handiagoak eta berriak izango dituzte.

Lanak 2018ko azken hiruhilekoan hasiko dira eta lau hilabete iraungo dute. 315.000 euroko aurrekontua izango dute.



Lanak irauten duten bitartean, udaltzaingoaren bulegoak udaletxeko bulego teknikoan dagoen eraikinean egongo dira.

Arreta gune espazioa bikoiztu eta eraikinak duen jatorrizko bobeda bistaratuko dute

metro karratu izango ditu. Beraz, bikoiztu egingo dute sarrerako espazio hori. Handiagoa ez ezik, argitsuagoa izango da, gaur egun sabai aizunak estaltzen duen bobeda bistaratuko dutelako eta handik argitasuna sartuko delako. Udala

Txakolin Eguna egingo dute zapatuan, txistulariek eta Kittu taldeak lagunduta

Luis Urrengoetxea kaleko tabernek antolatu dute



ZORNOTZA • J.D.

Zornotzako Lutaber elkarteak Txakolin Eguna antolatu du zapatarako. Egun guztian zehar Gorka Izagirre izeneko txakolina euro batean dastatzeko aukera egongo da Luis Urrengoetxea kaleko 12 tabernatan. Musikak jai-giroa sortzen lagunduko du. Eguerdian, 13:00etatik 15:00etara, Soinutxiki taldeak kantu poteoa girotuko du. Arratsaldean, 19:00etan, Kittu musika taldearen musika kontzertua izango da kalean.

Oletarantz doan espaloia esleitu dute, eta laster ekingo diete lanei

Otxandion hasi eta Etxebarri nekazalturismoraino helduko da espaloia. Bere azpitik azpiegiturak ere sartuko dituzte. Proiektuak 300 bat mila euroko aurrekontua du



Espaloi berriak 600 metroko luzera izango du.

OTXANDIO • J.D.

Azken udalbatzarrean, Otxandiotik Oletarantz joango den espaloiko lanak esleitu dituzte, eta laster ekingo diete lanei, hiru hilabete eta erdiko egikaritze epeagaz. Errepidearen ezkerreko aldetik —

Espaloiko lanak laster hasiko dira, eta hiru hile eta erdiko egikaritze epea izango dute

Oletarako noranzkoan— Etxebarri nekazalturismoraino helduko da espaloi berria, eta 600 bat metroko luzera izango du.

Lan horiek aprobetxatuz, espaloien azpitik askotariko azpiegiturak sartuko dituzte: saneamendu sarea, edateko uraren hoditeria eta fibra optikoa. Horregaz batera, espaloian zehar hainbat kale argi jarriko dituzte, ibilbidea behar den moduan argizatuta egon dadin. Proiektu osoa gauzatzeak 300.000 euroko inbertsioa eskatuko dio Otxandioko Udalari.

Aktibazio tailer bi egingo dituzte Mañaria Erein egitasmoa abiatzeko


MAÑARIA • J.D.

Nagusien beharrianak identifikatu eta eurei irtenbideak eman gura dizkien bost urteko egitasmoa abiatu du udalak. Mañaria Erein izena jarri dio, eta hiru fase izango ditu. Lehenengo, proiektuaren inguruko aktibazioa landuko dute. Apirilean egindako aurkezpenaren ostean, maiatzean 24an eta ekainean 14an aktibazio tailer bana egingo dute.

Ondoren, irailtik aurrera diagnostiko parte-hartzailea

Egitasmoa aktibazio tailerrak maiatzaren 24an eta ekainaren 14an egingo dituzte

gauzatuko dute. 60 urtetik gorako pertsonekin hainbat saio egingo dituzte, eta bestelako eragileekin ere batuko dira. Azkenik, hiru urteko epealdian, diagnostikotik irtendako ekin-tza plana gauzatuko dute.



Jaietarako kartel lehiaketa abiatu du Izurtzako Udalak, 250 euroko sariagaz

IZURTZA • J.D.

Izurtzako jaiak iragarriko dituen kartela zein izango den erabakitzeko lehiaketa abiatu du udalak. Lanak udaletxean aurkezteko azken eguna ekainaren 1a da, 13:00 baino lehen. Irabazleak 250 euroko saria jasoko du.

Parte-hartzaileek hainbat baldintza bete behar dituzte. Esaterako, kartelean 'Izurtzako Jaiak 2018' izenburua agertu behar da, eta jai horren ezagarriren bat jaso eta adierazi behar du. Kartelaren neurriak ere zehatzak dira (50x70). Kartela egiteko teknika, aldiz, librea da. Oinarri guztiak udaletxean jaso daitezke.

'Txiki' eta 'Ruso': orain 40 urte gertatutakoa gogoratzeko egunak

1978ko maiatzaren 11n ETAko kide durangarrak hil zituzten Gernikan; lagunek diote Guardia Zibilaren segada bat izan zela, eta 40 urtera, gertatua gizarteratu gura dute



Hilerrirako bidean jendetza elkartu zen. I.K. (Mugalarri)

DURANGO • MARKEL ONANDIA

"Egun haiek gogoratzeko kostatzen da, oraindik min egiten du. Baina egin behar da, jendeak gertatu zena jakin behar duelako, batez ere gazteek". Jose Mari Arrazola Ania Txiki eta Alberto Garcia Marmol Rusoren kuadrillako Josuren berbak dira, orain 40 urteko gertakariak gogoratu eta ezagutarazteko ekintzetara deitu dituzten lagunetako batenak. Berbaldi bat egon zen eguaztenean; gaur lore eskaintza egingo dute hilerrian, 12:00etan, eta elkarretaratzea, 20:00etan, Andra Marian. 1978ko maiatzaren 11n

"Rusori ez zion pistola ateratzeko astirik eman ihes zihorean, eta Txiki bota egin zuen"


Gernikan Guardia Zibilaren tiroen eraginez hil ziren ETAp barruko kritikoak ziren gazte durangarrak.

Gernikatik lehen berriak helitzean, bertara joan ziren lagun batzuk. "Rusori lepotik tiro egin

zioten, Gurutze Gorriaren parean, eta Txiki fusilatu egin zuten. Sastraka batzuen atzean ezkutatu zen, eta inguratuta sentitu zenean, bota egin zuen pistola. Handik irten eta fusilatu egin zuten; oinpean bala bat zuela da horren frogetako bat". Bertsio ofizialak zioen alde bien arteko tiroketa egon zela, baina Josu ez dator bat. "Rusori ez zion astirik eman pistola ateratzeko ihes zihorean, eta Txiki bota egin zuen". Bere esanetan, Gurutze Gorriaren inguruan bizi ziren bizilagunak guztiaren lekuko izan ziren.

Lagunak, komisaldegira

Testuinguru nahasian gertatu ziren Gernikako hilketak, trantsizioaren lehen urteetan. Gasteizko langileen hilketak, Sanferminetakoak... Durangon emandako erantzuna oso jendetsua izan zela dio. Bat-bateko manifestazioak eta greba orokorra egin zituzten, besteak beste. Handik hilabete batzuetara, Txiki eta Rusoren "kasik kuadrilla osoa" ere atxilotu zuten. "Gau bat pasatu genuen Indautxuko komisarian; egurra eman ziguten".



Haurreskolak doakoak izatea eskatu du Durangoko Udalak

DURANGO • M.O.

Durangoko haurreskolak doakoak izatea eskatu du udalak, EH Bilduren inizatibaz. Alderdiak jakinarazi du eskola horiek doakoak izateko proposamena "askotan" egin duela udaleko hezkuntza batzordean, eta, orain, udalak Eusko Jaurlaritzari eta Haurreskolak Partzuergoari bidali die eskaera.

EH Bilduk gogoratu du jaurlaritzaren eta udalen arteko

Matrikulazioa bajatu egin da, "familia askok ezin izan dietelako gastuei aurre egin"

hitzarmen bati esker sortu zela Haurreskolak Partzuergoa, eta matrikula kopurua bajatu egin dela, "familia askok ezin izan dietelako aurre egin matrikulazioak dakartzan gastuei". Horregatik, eskola publiko horiek doakoak izatea gura dute. "Haur eta familia guztien hezkuntza berdintasuna bermatuko litzateke", esan dute. Familia-bizitza bateratzen lagunduko lukeela uste dute, eta zaintza lanetan dagoen genero "desberdintasuna leuntzen" ere bai.

Euskara, kultura, gazteria eta kirolean diru-laguntzak eskainiko dituzte

DURANGO • M.O.

Durangoko Udalak bederatzi arlotarako diru-laguntzak argitaratu ditu eta, horrela, herrian askotariko aktibitateak antolatzen dituzten elkartei lagunduko die.

Gazteria eta kirolen ataletan, maiatzaren 24ra arte eskatu ahalgo dira laguntzak. Kulturean, ohiko ekintzetarako, ekainaren 1era arte egongo da epea, eta ezohikoei dagokienez, azaroaren 15era arte. Euskara sustatzen dutenek ekainaren 1ean edukiko dute epemuga; euskara ikasteko beka gura dutenek uztailaren 13ra arte; eta errotuluak eta webguneak euskaraz jarriko dituztenek urriaren 31ra arte.

Bertako behi-esnea Durangaldeko denda eta harategietan salgai

Bertako behi-esnea Durangaldeko denda, harategi eta jatetxeetan banatzen du Biritxinaga familiak. Aiarbi esnea ustiatetik zuzenean herritarrengana helitzen da. %100 produktu naturala da, bertakoa eta kalitate gorenekoa. Izan ere, produktuaren kalitatea bermatzeko esnearen prozesu guztia Biritxinaga familiak Berrizen duen instalazioetan burutzen da. Hau da, bertan ekoiztu, poltsaratu eta banatzen da, bitartekaririk barik. Produktua Durangaldeko denda txiki, harategi eta gozotegietan

dago eskuragarri. Horrez gain, hainbat catering enpresek eta baita inguruko jatetxe garrantzitsuenetarikoe ere Aiarbi esnea erabiltzen dute beraien menuak osatzeko.


Ustiatetik zuzenean kontsumitzeko prest dago. %100 produktu naturala da

Berrizko Errotazar baserrian prozesu guztia burutu duen esnea poltsa berezi batzuetan merkaturatzen dute. Gainera, zuzenean kontsumitzeko prest dago.

Harrera oso ona

Berrizko Errotazar baserrian dute Aitor eta Arkaitz Biritxinaga anaiek ustiatetgia. 2013an Euskal Herriko Ustiatetgirik onenaren saria jaso zuten.

Orain urte bi ekin zioten behi-esnea merkaturatzeari. Produktuak merkaturatzea "harrera oso ona" izan duela nabarmendu du Aitor Biritxinagak.



Jihadismoagaz lotuta gazte bat atxilotu dute Abadiñon, eta Durangon etxe bat miatu dute

Espainiako Barne Ministerioak azaldu du kideak errekrutatzeke sare birtual bateko partaide izatea leporatzen diotela Abadiñon atxilotutako 33 urteko gazteari; Estatu Islamikoaren propaganda egitea eta atentatuak bultzatzea ere bai



Durangon, Kanpatorrosteta kalean egin zuten miaketa hainbat orduz.

DURANGO / ABADIÑO • M.Z. / J.G.

Polizia Nazionalak 33 urteko gazte bat atxilotu zuen martitzenean Traña-Matienan, jihadismoaren aurkako nazioarteko polizia operazio baten barruan. Durangon etxe bat miatu zuten atxilotuaren aurrean, eta goizean zehar herritarren kezka eta interes iturri izan

Durangon etxe bat miatu zuten atxilotuaren aurrean, Kanpatorrosteta kalean, martitzenean

zen polizia operazio hori. 14:30era-ko amaitu zuten.

Barne Ministerioak azaldu duenez, errekrutatzeke egitura birtual bateko kide izatea leporatzen diote atxilotuari, eta Estatuan eta Europako beste herrialde batzuetan atentatuak bultzatzea zuen helburu. 21 urteko gazte bat ere atxilotu

zuten Lorcan (Murtzia, Espainia), eta beste hiru Marokon, hango poliziagaz elkarlanean. Barne Ministerioaren arabera, "sare honek sare sozialetako profilak erabiltzen zituen DAESHetik jasotako kontsignak burutu ahal izateko eta material propagandistikoak zabaltzeko".

Sei egunez San Trokaz jaietz gozatzeko aukera egongo da Zelaietan

ABADIÑO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Dantzari eta txistularien ekitaldiagaz eta Gerbasen kalejiragaz hasiko dituzte, bihar, Zelaietako San Trokaz jaiak. Asteburu honetarako, hurrengo astebururako zein aste bitarterako, gustu guztietarako ekintzak antolatu ditu Jai Batzordeak.

Musikak protagonismo berezia izango du jaietan. Bihar Moonshine Wagon eta The Riff Truckers taldeak arituko dira, eta maiatzaren 15ean erromeria egongo da, Luhartzen eskutik.

Musikak protagonismo berezia izango du bihar Zelaietan hasiko diren San Trokaz jaietan

Hilaren 19an, berriz, Gozategi, The Wilsons, Sumision City Blues, Joseba B.Lenoir eta Willis Drumond arituko dira.

Bestalde, haur eta gazte-txoentzat ere hainbat ekintza antolatu ditu Jai Batzordeak; esaterako, zapatuan, 11:00etan, ume eta gazteen bizikleta martxa abiatuko dute, Txaporta plazatik. Horrez gain, San Trokaz jaietan familia arteko jolasak ere egongo dira, Katalamixon aisialdi elkartearen eskutik.

Zaldibarrek ikasketa gela berria estreinatu du maiatzean, ikasleen beharrak asetzeko asmoz

KZgunea zegoen eraikina baliatu du udalak, ikasle zaldibartarrek herritik mugitu barik ikasi ahal izateko

ZALDIBAR • ARITZ MALDONADO

Ikasle zaldibartarren eskaera betetzeko, ikasketa gela ahalbidetu du udalak KZgunea zegoen lekolean. Aldatsa kalean dagoen lekolean jarriko dute ikasketa gela, eta hoguei ikaslerentzako lekua egongo da bertan. Interneten sartzeko aukera ere eskainiko du. "Orain artean, zaldibartar askok beste herri batzuetara jo behar izan dute azterketak prestatu ahal izateko, eta gure asmoa ikasteko aukera herrian bertan eskaintzea da", adierazi du Eneritz Azpitarte alkateak. Jasone Urizar zinegotziak, bestalde, ikaste-

ko gela jartzeko erabakia "inkestentzako bidez" hartu zela nabarmendu gura izan du. Horrela, hasiera batean lokalak 10:00etatik 20:00etara bitartean zabalik egongo den arren, ez da baztertzeko aurrerago ordutegi hori zabaltzea. "Bere garaian eginitako inkestetako emaitzak ikusita, horrela adostu genuen. Hala ere, bestelako proposamenak aztertzeko aukera zabalik dago", azaldu zuen zinegotziak apirileko osoko bilkuran. Osoko bilkura horretan aho batez onartu zuten ikasteko espazio berri hau jartzea, eta baita bertako araudia ere.



Hogei ikaslerentzako lekua eskainiko du ikasketa gela berriak.



lazko mintzopoteko irudia

Euskararen inguruan euskaraz jarduteko Mintzopotea egingo dute gaur lurretan

IURRETA • AITZIBER BASAURI

Iurretako Udalak eta Euskararen Aholku Batzordeak Mintzopotea antolatu dute hirugarren urtez. Gaur izango da hitzordua, euskararen inguruan eta euskaraz jarduteko. Dantzari auzoan, 19:00etan. Berrikuntzekin dator, gainera. Izan ere, Mintzopotea amaituta, Ikimilikiliklik argazki-lehiaketaren sariak banatuko dituzte, eta, gainera, ume eta gaztetxoek Golazen Karaoke-gaz abesteko eta dantzatzeko aukera izango dute; Askondo kaleko aterpean izango da, Iban Garcia youtuberrak aurkeztuta.

Arrozaren inguruan hainbat elkarte kultur aniztasunaren jaira batuko dira lurretan

Herriko hainbat komunitateren artean elkarbizitza eta harremanak sustatzea da helburua



Elkarteetako kideek, udalagaz batera, martitzenean egin zuten aurkezpena.

IURRETA • JONE GUENETXEA

Iurretako Askondo kalea herriko kultur aniztasunaren isla izango da zapatuan. Herrian bizi diren komunitateen artean elkarbizitza eta harremanak sustatzea da ekimenaren helburua. "Herri eredu zabal bat izan gura dugu hurrengo belaunaldientzat", adierazi dute. Arrozaren inguruan Iurretako hainbat elkarte batuko dira jaira: Río de Oro, La Otra Mirada, Biladi, Gurutze Gorria, Senegalgo eta Maliko familiak, EKI herri kirolen taldea, Mikel Deuna dantza taldea, sabel-dantza taldea...

Río de Oro, La Otra Mirada, Biladi, Mikel Deuna... hainbat elkartek egin dute deiagaz bat

Goizean, umeentzako tailerrak, tea, dantzariak eta batukada izango dira. Eguerdian, arroza oinarri izango duen bazkaria banatuko dute, elkarte bakoitzak bere erara prestatuta. Txartelak elkarte bidez eskuratu daitezke, baita Ibarretxen, Herritarren Arreta Zerbitzuan, Nagusien Etxean eta Gauargin ere. Ondoren, musikagaz eta dantzagaz gozatu ahal izango dute.



Ibon Arroyo Arruabarrena (Elorrio)

Zergatik aukeratu zenuen Sistema Elektrotekniko eta Automatizatuak Goi mailako heziketa zikloak? Eta, zergatik Mondragon Goi Eskola Politeknikoan?

Aurretik Mekatronika zikloa egin nuen, baina pentsatu nuen ziklo honetan hartutako ezagutzarekin erraztu egingo lidakeela etorkizunera begira, arlo honetan lanbide egonkor bat bilatzeko aukera.

Mondragon Goi Eskola Politeknikoa aukeratu nuen, Elorrioren bizi naizelako. Arrasate nahiko gertu daukat, eta bestalde, ziklo honi buruzko erreferentzia onak neuzkan bertan ikasitako beste ikasle batengandik.

Heziketa ziklo honetan ETHAZI metodologia aktiboarekin lan egiten duzue, hau da, ekipo-lanean erronkak eginez funtzio profesionalak lantzen dituzue. Zer nolako erronkak egin dituzue?

Joan zen urtetik ETHAZI metodologiarekin erronka bidez murgildu gara. Joan zen urtean adibidez hiru erronka garatu genituen: etxe bateko instalazio elektrikoa, telebista antena baten azterketa, eta ur ponpa baten instalakuntza eta kontrola. Aurten berriz bi erronkakin aritu gara: txalet baten automatizazioa eta autobide bateko tunel- kontrola.

Nola baloratuko zenuke esperientzia hau?

Lehenik ikasien artean sortu den lantalde giro jatorra. Asko lagundu du taldeko ikasle kopurua murriztea izateak.

Baita ere aipatuko nituzke gure esku jarritako errekurtsioak eta materialak.

MGEP

MONDRAGON GOI ESCOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

75

75 URTEZ ANIZTZA SUSTATUZ
ETORKIZUNA ERAKITZEN

www.mondragon.edu/gmhz
gmhz.mgep@mondragon.edu
943 71 21 91

Ate Irekien Jardunaldia

Maiatzak 23 18:00

Eskaintza akademikoa

- Sistema Elektroteknikoak eta Automatizatuak
- Automatizazioa eta Robotika Industrialak
- Sareko Informatika Sistemen Administrazioa
- Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa
- Mekatronika Industrialak



'Maputxeen borroka eta duintasun istorioak' berbaldiak zabalduko du Kainaberaren zikloa

Gobernuz Kanpoko Elkarteak antolatzen duen hitzaldi zikloa maiatzaren 16an hasi eta ekainaren 9an amaituko da

ELORRIO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Maiatzagaz batera, Kainabera elkarteak antolatzen duen berbaldi zikloa heldu da. Elorrioko elkarteak hamasei urtetik gora darar matza hitzaldiak antolatzen, eta aurtengoan ere ez dute hutsik egin.

Maputxeen herriko istorioek zabalduko dute hitzaldi zikloa, Wallmapu Euskal Herria elkartearen eskutik. Lehenengo hitzaldia eguaztenean izango da, hilaren 16an, 19:00etan, Iturri Kultur Etxean.

Wallmapu Euskal Herria elkarteak eskainiko du lehenengo berbaldia, eguaztenean, 16an



Iturri Kultur Etxean izango dira berbaldiak.

Maputxeen herriaz gain, Siriako gerra ere izango dute berbagai Elorrion. Maiatzaren 25ean, Victor Pozas HEGOA fundazioko kideak emango du hitzaldia, 19:00etan, Iturri Kultur Etxean.

Victor Pozas HEGOA fundazioko kidea Siriako gerraz arituko da, maiatzaren 25ean

Maiatzaren 30ean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren gainean arituko dira Elorrion

Maiatzaren 30ean, berriz, diru-sarrerak bermatzeko errentaren gainean arituko dira Elorrion. Hitzaldi zikloari ekainaren 9an emango diote amaiera. Azken berbaldian, emakume etorkin zain-tzaileen gaia jorratuko dute.

Garaiko 32 lagunek eman dute izena Gure Esku Dagoren giza katean parte hartzeko

GARAI • MARKEL ONAINDIA

Ekainaren 10erako giza kate erraldoia prestatzen dabil Gure Esku Dago, Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotuko dituen. Garain, joan zen barikuan ipini zuten inskripzioarako mahaia, eta 32 lagunek eman zuten izena. Garaitarrek iurretarrekin batera osatuko dute kateko euren ibilbidea, guztira 500 laguneko.

Atxondarrek igerileku ondoan dauden herri ortuetan izena emateko aukera dute

ATXONDO • MAIALEN ZUAZUBISKAR

Iaztik martxan daude herri ortuak Atxondon, igerilekuaren ondoan, eta David Cobos alkateak jakitera eman duenez, gura dutenek oraindik ere badute aukera izena eman eta herri ortuak erabiltzeko. Izen-ematea udaletxean egin behar da, bulego orduetan.

mam
ginekologia
zentroa

Durangon Berria!

Miren Arrizabalaga Aizpurua Dk. - 20/7196
Maria Unamuno Beraza Dk. - 48/9654
Alaitz Pagaldai Bereziartua Dk. - 20/7605

GINEKOLOGIA

Azterketa ginekologiko osoa
Kontrazeptzioa
Menopausia eta osteoporosia
Nerabezaroko ginekologia
Gernu-ihesa
Cervix patologiak
Laser ginekologikoa
Bagina-birgaztetzea
Ginekoestetika

Aseguru-etxe gehienekin egiten dugu lan
LagunAro, IMQ, Sanitas,...

OBSTETRIZIA

Haurdunaldiko frogak eta jarraipena
Ekografia 3D-4D
Jaio aurreko diagnostikoa
Amniozentesia

EMAGINA Naiara Moral Manceras - 12511

Erditzerako prestaketa ikastaroak
Erditzeoste eta edoskitze tailerrak
Emakumearen osasun sexual eta ugaltzean aholkuak

FISIOTERAPIA

Agurtzane Iñurrategi Iriarte - COFPV 386
Emakumeentzako fisioterapia integrala
Haurdunarentzako fisioterapia
Zoru pelbikorako fisioterapia

YOGA

Yoga Haurdunaldian, menopausian,
onkologia prozesuetan...

Mikeldi 13,
48200-DURANGO
T 946 05 53 04
info@mamginekologiadurango.com
www.mamginekologiadurango.com

HITZORDUA ESKATU

674 322 360





ENRIKE AGIRREBEITIA

Hareek denporak!

Mendilibarrek Bizkaiko herri artekoa irabazi zueneko

Zaldibarrek lau bider irabazi du Bizkaiko Herri Arteko Pilota Txapelketa. Bigarrena 1978an izan zen, orain 40 urte, eta Zaldibar ordezkatzeko zuten pilotarien artean Jose Luis Mendilibar futbol entrenatzailea zegoen.

Argazkian behean ageri da, eskuman. Bere ondoan, makurtuta, Pedro Mari Garita eta Zorion Belar daude, eta goian, ezkerretik eskumara, Balendin Lasuen, Zaldibarko orduko al-

katea, Enrike Agirrebeitia, Jose Javier Zalduegi, Oskar Uribe, Alex Berasaluze eta Pedro Garita.

Balendin Lasuenek Zaldibarri buruzko liburuxka batean ematen du herri arteko lorpenen berri. Faboritoari irabazi zioten, Zaratorri. Kadeteetan galdu egin zuten. Gazteetan, Mendilibarrek eta Belarrek berdindu egin zuten finalean. Nagusietan, Agirrebeitiak eta Garitaonandiak irabazi egin zuten.

Sei hankako mahaia

Dani
Maeztu Perez
EH Bildu



Kirolene Eta Kudeaketa

Irakurle hori, lerrook irakurri orduko bukatuta egongo da mendiko kirolekin zerikusia duen film laburren lehiaketa. San Agustinen egin da proiektio lehiaketa, eguenean eta barikuan, eta ziurrenik, zuetariko gehienek ez duzue jakingo zeinek antolatuta duen. Bai, Kirolenek.

Zer den Kirolene? Kirol arloko titulazioetarako eskola ofizial bakarra Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan. Gero eta kirol titulazio gehiago eskaintzen duena eta 300 ikasle baino gehiago mugitzen dituen urtero.

Horregatik, hain zuzen, antolatuta dute aipatutako emanaldi eta lehiaketa, euren jarduna ezagutzera emateko, durangarroi erakusteko harribitxi bat daukagula gure herrian bertan. Zerbitzu-herriri aurreratua izan beharko luke Durangok eta Kirolene apustu sendoa izan daiteke herriaren etorkizunean.

Eta zer gertatzen da, bada, Kirolenerekin? Udalak, honetan ere, mailarik ematen ez duela. San Inazio auzuneko eraikin zahar batean jarraitzen du institutuak, ostrazismo krudelera kondatuta. Kirol instalazioak erabiltzeko erraztasunak baino, oztopoak topatzen dituzte... zer izango da hurrengo? Egiari zor - eskerrak, San Agustineko emanaldiak eta lehiaketa antolatzeke, udalak ez du oztoporik jarri. Baina, egiari zor ere, gai honetan eta beste askotan benetako aldaketarik eta bultzadarik ez dugu espero udalean dauzkagun kudeatzaile hauekin. Herritarrek helburu? Ja! Kudeaketa balute, behintzat, helburu...

Durungaldea asteen

Bihartik maiatzaren 19ra bitartean Asentzio jaiak ospatuko dituzte Andikoan

Berriz | Zapatuan, Donien Atxa jasota eta Maria Rosa Calvoren harpa kontzertuagaz emango diote hasiera Asentzio jaiak Andikoan. Domeka goizean, ganadu erakusketa, meza eta dantzariak egongo dira. 12:00etan, Miren Amurizak eta Onintza Enbeitak bertso saioa eskainiko dute, eta bertaraten direnek saiheskia dastatzeko aukera edukiko dute. Arratsaldean, bolo txapelketa egongo da, eta gero, erromeria, Hegoi eta Bidarten eskutik.

Bost auzotan seinaleak eta panelak jarriko ditu Abadiñoko Udalak

Abadiño | Irazola, Gaztelua, Lebario, Gerediaga eta Urkiola-Amaitermin auzoetan, ibilbideak markatzeko eta auzo horietako ingurumen eta ondare elementurik esanguratsuenak nabarmentzeko asmoz, Abadiñoko Udalak seinaleak eta panelak jarriko ditu. Udalak jakitera eman duenez, 14.500 euro erabiliko dituzte lan hauek egiteko.

Zornotza genero ikuspegitik aztertuko dute gaur egingo duten ibilaldian

Zornotza | Udalak genero ikuspuntua txertatu du plan orokorrean eta, ildo horretatik, herrian zer hobekuntza egin daitezkeen jakiteko, ibilbide parte-hartzaile bat prestatu dute gaur arratsalderako. Ibilaldia udaletxeko plazatik irtengo da, 17:00etan, eta herri-tarrei parte hartzeko deia egin dute.

OHIANE FERRERIA LANDETA



Kurutziaga ikastolako sortzaileei omenaldi hunkigarria egin diete 50. urteurrenean

Durango | Orain 50 urte Kurutziaga ikastolaren sorreran eta hasierako urteetan hezkuntza proiektu hau bultzatu zuten gurasoak omendu zituzten, joan zen eguenean, ikastolan antolatutako ekitaldian.

Ehunka lagun bildu ziren hilaren 3an, Kurutziaga ikastolaren sorreran parte hartu zuten gurasoen lana eskertzeko ekitaldian. Makina bat batzar, diru-batze, tortilla eta errifa prestatutako gurasoek Kurutziaga osoaren esker ona jaso zuten.

Zure iritzia, gutuna edo fotodenuntzia helarazteko helbideak:

Bixente Kapanaga 9, - IURRETA - Izen-abizenak - telefonoa - helbidea - Nortasun Agiriaren zenbakia **DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO** Alderdi, elkarte edo taldeko iritzia kide baten izenean sinatuta eta ANBOToren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (taratek barne).

ELIKAGAIEN ERABILTZAILE FORMAKUNTZA IKASTAROA (Elikagaien manipulatuak kameta)

Data: Maiatzaren 23an
Ordutegia: 16:00tik 20:00tara.
Prezioa: 20€

Izen-ematea: ikastaroak@ibaizabalikastola.eus
Adina: 16 urtetik gora



GAER DESINFEKZIOAK



Mota guztietako intsektuak
eta arratoiak hiltzen ditugu:


LABEZOMORROAK, INURRIAK,
JANTZI-SITSAK, ARRATOIAK,
ARKAKUSOAK, ERLEAK...



Iturriza, 42 - 2 ezk. - Tel./Faxa: 946 225 774 / 658 757 279 - BERRIZ


Bai bitxia!!

Itsaspean aurkitu beharko ez genituzkeen elementuak daude hemen. Zeintzuk dira?



ZazpiKoa

Bila itzazu bi irudi hauen artean dauden zazpi aldeak.



www.plazanbazan.com
Egilea: Garbine

Aibala!

Zomorroa naizela badakizu ondo, baina **INTSEKTU** ez naiz ta ez naiz izango. aldea zein ote den dizuet esango: **HIRU** pare zango.

Arraioa, zenbat hanka ditu ba alu horrek!

Egin gurutzea laukian, erantzun zuzenari.

- Armiarmak begiak adina zango ditu.
- Lau pare zango.
- Guztira hamar zango.



Ganbaran

Maripurtzil eta Pelloziri zakurraren bila dabilta, gaur bainatu beharra duelako. Pinttok, ordea, ez ditu xaboa eta ura batere gogoko eta alde egin die. Ganbaran gorde ote da? Zer uste duzu zuk?



CENTRO HÍPICO
DUKIEN
ABADIÑO-BERMEO


centrohipicodukiena.com

Informazio eta erreserbak

631 115 247


Bai bitxia!!

Itsaspean aurkitu beharko ez genituzkeen elementuak daude hemen. Zeintzuk dira?



ZazpiKoa

Bila itzazu bi irudi hauen artean dauden zazpi aldeak.



www.plazanb
Egilea: Garbine

Aibala!

Zomorroa naizela badakizu ondo, baina **INTSEKTU** ez naiz ta ez naiz izango. aldea zein ote den dizuet esango: intsektuek dituzte **HIRU** pare zango.

Arraioa, zenbat hanka ditu ba alu horrek!

Egin gurutzea laukian, erantzun zuzenari.

- Armiarmak begiak adina zango ditu.
- Lau pare zango.
- Guztira hamar zango.



Ganbaran

Maripurtzil eta Pelloziri zakurraren bila dabilta, gaur bainatu beharra duelako. Pinttok, ordea, ez ditu xaboia eta ura batere gogoko eta alde egin die. Ganbaran gorde ote da? Zer uste duzu zuk?



• Ea
kapela

CENTRO HÍPICO
DUKIEN
ABADIÑO-BERMEO

centrohipicodukiena.com

Informazio eta erreserbak

631 115 247



Ez dok hiru

ANTZERKIA
ZORNOTZA :: MAIATZAK 11

"Euskal musikaren benetako istorioa", Telleria eta Martinezegaz

Patxo Telleria eta Mikel Martinez bilbotarren eskutik, *Ez dok hiru* antzezlanaren etorriko da datorren barikuan Zornotza Aretora (20:15). Euskal musikaren imaginario kolektiboan murgilduko dituzte ikusleak, baina ikuspegi ero eta barregarri batetik.

Txotxe gogoratu eta omentzeko erakusketa

OMENALDIA • Otsailean hildako Jose Martin Urrutia *Txotxeren* omentzeko erakusketa antolatuko du San Agustin kulturguneko sarreran. Kurutziazgako irakasle eta Karrikako kide zenaren lanak, idatziak, argazkiak eta abar ikusi ahal izango dira bertan.

Maiatzaren 13an, 18an eta 19an egongo da erakusketa ikusgai. *Txotxeren* lagunek antolatuko dute ekintza.

Maiatzaren 11n

MALLABIA deialdia
Gurasolagun irekia,
16:00etan, eskolako frontoian.

DURANGO emanaldia
'Oxigenoa Euskarari
6.000 metrotan' hitzaldia
Felipe Uriarteren
eskutik; ostean, Kirolene
Film Festival jaialdiaren
sari banaketa eta film
laburren proiektzioa.
20:00etan, San Agustin
kulturgunean.

ELORRIO antzerkia
'Sherezade y las Capas
de la Cebolla', 20:30ean,
Arriolan.

DURANGO musika
'Jam Session', 21:30ean,
Plateruenean.

ELORRIO musika
Desorden eta Los Perros
taldeen kontzertua,
22:30ean, gaztetxean.

ABADIÑO bertsolaritza
Bertso saio antologikoa
Eli Pagola, Txaber
Altube, Maider Arregi
eta Aitor Bizkarragaz.
Gai-jartzaile lanetan
Iker Apraiz arituko da,
22:00etan, gaztetxean.

Maiatzaren 12an

DURANGO deialdia
'Etxelaguntza zerbitzua
berreskuratzeko'
mobilizazioa CCOOK
deituta, 12:00etan, Andra
Marian.

ABADIÑO jaiak
Haur eta
gaztetxoentzako
bizikleta martxa
11:00etan
Pedalik gabeko bizikleta
proba 12:30ean
Familia arteko jolasak
16:30ean
GERBASen kalejira
txistulariekin eta
dantzarien ekitaldia
19:00etan
Jaialdia txanporta plazan
21:30ean



ELORRIO bertsolaritza
2018ko Bizkaiko
Bertsolari txapelketako
saioa, 17:30ean, Arriolan.



'Herrixa dantzan'

Elorrioko plazan

DANTZALDIA
ELORRIO :: Maiatzak 12

Bihar dantzazalez beteko da Elorrioko plaza, *Herrixa dantzan* ekimenagaz. Patxi Monterok gidatutako dantzaldia izango da: sokan, bikotea, soltean, taldeka, bikote aldaketan... Besaide taldeak antolatuko du.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

ZORNOTZA antzerkia
Volosi taldearen
kontzertua Eleizetan
jaialdiaren baitan,
20:00etan, Etxanoko Andra
Maria elizan.

BERRIZ jaiak
Donien Atxa jasotzea,
Asentzio jaiei hasiera
emateko, iluntzean,
Andikoan.

BERRIZ antzerkia
Maria Rosa Calvo-
Manzanoren kontzertua,
20:00etan, Kultur Etxean.

ZALDIBAR musika
La Ultima Bala eta Atila
Txiguagua Beldurgarria
taldeen kontzertua,
22:30ean, gaztetxean.

Maiatzaren 13an

ZORNOTZA antzerkia
Balaguera taldearen
kontzertua Eleizetan
jaialdiaren baitan,
20:00etan, Etxanoko Andra
Maria elizan.

DURANGO antzerkia
'Ulisesen Bidaia'
antzezlanaren Gorakada
taldearen eskutik,
18:00etan, San Agustin
kulturgunean.

BERRIZ musika
Ouzo Bazooka taldearen
kontzertua, 20:00etan,
Kultur Etxean.

ABADIÑO jaiak
Tailerrak Txanporta
plazan, 11:00etan
Kamisetak margotzeko
tailerra, grafiti tailerra,
txirrindulari lasterketa
13:00etan
Kalejira Ttek!
Elektrotxaragagaz
18:00etan

Maiatzaren 14an

MALLABIA hitzaldia
'Envejecer de manera
saludable' hitzaldia
hirugarren adineko
elkarateak antolatuta,
16:30ean, jubiletxean.



Iurretako gazteak surf eta paintball

AISIA | Herriko gazteei zuzendutako irteera bi antolatu dituzte Iurretan, Udaberriko Gazte Programazioaren barruan. SUP (zutik eta palagaz praktikatzen den surfa) eta Paintball egiteko aukera edukiko dute 12-18 adin tar-tekoek. Urdaibain izango da lehena, eta Zornotzan bigarrena.

Ibarretxe kultur etxean eskura dauden inskripzio

eta guraso bete, eta beharko Hartara, naurra iz gazteekin rriko da udalaren barru naren barru gazte osortu da, eta tekniko landu dute



Ez dok hiru

ANTZERKIA
ZORNOTZA :: MAIATZAK 11

"Euskal musikaren benetako istorioa", Telleria eta Martinezegaz

Patxo Telleria eta Mikel Martinez bilbotarren eskutik, *Ez dok hiru* antzezlanaren etorriko da datorren barikuan Zornotza Aretora (20:15). Euskal musikaren imaginario kolektiboan murgilduko dituzte ikusleak, baina ikuspegi ero eta barregarri batetik.

Txotxe gogoratu eta omentzeko erakusketa

OMENALDIA • Otsailean hildako Jose Martin Urrutia *Txotxeren* omentzeko erakusketa antolatuko du San Agustin kulturguneko sarreran. Kurutziaz gako irakasle eta Karrikako kide zenaren lanak, idatziak, argazkiak eta abar ikusi ahal izango dira bertan.

Maiatzaren 13an, 18an eta 19an egongo da erakusketa ikusgai. *Txotxeren* lagunek antolatuko dute ekintza.

Maiatzaren 11n

MALLABIA deialdia
Gurasolagun irekia,
16:00etan, eskolako frontoian.

DURANGO emanaldia
‘Oxigenoa Euskarari
6.000 metrotan’ hitzaldia
Felipe Uriarteren
eskutik; ostean, Kirolene
Film Festival jaialdiaren
sari banaketa eta film
laburren proiektzioa.
20:00etan, San Agustin
kulturgunean.

ELORRIO antzerkia
‘Sherezade y las Capas
de la Cebolla’, 20:30ean,
Arriolan.

DURANGO musika
‘Jam Session’, 21:30ean,
Plateruenean.

ELORRIO musika
Desorden eta Los Perros
taldeen kontzertua,
22:30ean, gaztetxean.

ABADIÑO bertsolaritza
Bertso saio antologikoa
Eli Pagola, Txaber
Altube, Mainer Arregi
eta Aitor Bizkarragaz.
Gai-jartzaile lanetan
Iker Apraiz arituko da,
22:00etan, gaztetxean.

Maiatzaren 12an

DURANGO deialdia
‘Etxelaguntza zerbitzua
berreskuratzeko’
mobilizazioa **CCOOK**
deituta, 12:00etan, Andra
Marian.

ABADIÑO jaiak
Haur eta
gaztetxoentzako
bizikleta martxa
11:00etan
Pedalik gabeko bizikleta
proba 12:30ean
Familia arteko jolasak
16:30ean
GERBASen kalejira
txistulariekin eta
dantzarien ekitaldia
19:00etan
Jaialdia txanporta plazan
21:30ean



ELORRIO bertsolaritza
2018ko Bizkaiko
Bertsolari txapelketako
saioa, 17:30ean, Arriolan.



‘Herrixa dantzan’ Elorrioko plazan

DANTZALDIA
ELORRIO :: Maiatzak 12

Bihar dantzazalez beteko da Elorrioko plaza, *Herrixa dantzan* ekimenagaz. Patxi Monterok gidatutako dantzaldia izango da: sokan, bikotea, soltean, taldeka, bikote aldaketan... Besaide taldeak antolatuko du.

ANBOTOk agendan ezer iragarri gura baduzu, idatzi agenda@anboto.org helbidera edo deitu **946 232 523** telefonora, eguazten eguerdia baino lehen.

ZORNOTZA antzerkia
Volosi taldearen
kontzertua Eleizetan
jaialdiaren baitan,
20:00etan, Etxanoko Andra
Maria elizan.

BERRIZ jaiak
Donien Atxa jasotzea,
Asentzio jaiei hasiera
emateko, iluntzean,
Andikoan.

BERRIZ antzerkia
Maria Rosa Calvo-
Manzanoren kontzertua,
20:00etan, Kultur Etxean.

ZALDIBAR musika
La Ultima Bala eta Atila
Txiguagua Beldurgarria
taldeen kontzertua,
22:30ean, gaztetxean.

Maiatzaren 13an

ZORNOTZA antzerkia
Balaguera taldearen
kontzertua Eleizetan
jaialdiaren baitan,
20:00etan, Etxanoko Andra
Maria elizan.

DURANGO antzerkia
‘Ulisesen Bidaia’
antzezlanaren Gorakada
taldearen eskutik,
18:00etan, San Agustin
kulturgunean.

BERRIZ musika
Ouzo Bazooka taldearen
kontzertua, 20:00etan,
Kultur Etxean.

ABADIÑO jaiak
Tailerrak Txanporta
plazan, 11:00etan
Kamisetak margotzeko
tailerra, grafiti tailerra,
txirrindulari lasterketa
13:00etan
Kalejira Ttek!
Elektrotxaragagaz
18:00etan

Maiatzaren 14an

MALLABIA hitzaldia
‘Envejecer de manera
saludable’ hitzaldia
hirugarren adineko
elkarateak antolatuta,
16:30ean, jubiletxean.



Iurretako gazteak surf eta paintball

AISIA | Herriko gazteei zuzendutako irteera bi antolatu dituzte Iurretan, Udaberriko Gazte Programazioaren barruan. SUP (zutik eta palagaz praktikatzen den surfa) eta Paintball egiteko aukera edukiko dute 12-18 adin tar-tekoek. Urdaibain izango da lehena, eta Zornotzan bigarrena.

Ibarretxe kultur etxean eskura dauden inskripzio

eta guraso bete, eta beharko Hartara, naurra iz gazteekin rriko da udalaren barru naren barru gazte oso sortu da, eta tekniko landu dute

“Talde lan oso neurtua du obrak; akatsek eragina dute, baina ongi irteten denean, asebetetzea ikaragarria da”

Gorakada antzerki taldeak 'Ulisesen Bidaia' antzezlana aurkeztuko du, domekan, San Agustin kulturgunean; 18:00etan hasiko da emanaldia



Aritz Rodriguez Foruria
Antzezlea

Zaldibar | 1977

hau bada familia osoarentzako antzerkia.

Zein da zure papera antzezlanean?

Ni Ulises naiz.

Durangon arituko zarete domekan.

Zer sentsazio duzu?

Durangon aritzea etxean aritzea bezalakoa da. Familia osoa etorriko da ikustera, eta oso gogotsu gaude denok. Normalean, Gorakadak harrera ona izaten du Durangon, eta oraingoan ere aretoa betetzea espero dugu. Gainera, inguruetakoak gara guztiok: ni zaldibartarra; Ion Chavez berriztarra, argiekin dabil; Igor Iglesias durangarra, soinuagaz; eta Fran Lasuen zornotzarra da. Emanaldi berezia izango da guretzat.

Baduzu beste proiekturik esku artean?

Gorakadagaz *Moby Dick* eta *Ulisesen Bidaia*guz jarraitzen dut. Horiez gainera, Barsanti kale antzerki taldeagaz *Umoro Azoka* Leioarako antzezlana bat prestatzen nabil. Etxetik kaleratu dituzten agure buri buruzko obra da. Zapatu honetan aurrestreinaldia dugu Usansolon, eta Leioan egingo dugu aurkezpena, gero, jaialdiaren baitan.

Orain urte bi eginiko elkarrizketa batean, ibilbide profesionalagaz pozik eta une gozoan bizi zinela zenioen. Berdin jarraitzen duzu?

Oso gustura nago. Gorakadan eginen nabilen guztiagaz ere oso gustura nago; zuzendariak darabilen hizkuntza eta egiteko modua asko gustatzen zaizkit. Aipatzen duzun elkarrizketa horren garaian Malas Compañías taldeagaz ere banenbilen lanean, baina hori utzi egin behar izan dut, zahartuta nagoe-lako (barrez). Ez, benetan esanda, kide bik taldea utzi genuen, bizkarreko arazoak eduki genituelako. Akrobaziak eta zirkua alboratu egin ditut momentuz, baina, gero-bera begira, badut berreskuratzeko asmoa. Ea datorren urterako edo. Lagun baten obra zuzentzen ere banabil. Asko gustatzen zait lan hau. Lan falta ez dagoen bitartean, ondo. Orain artean ez dut ikus-entzunezko egin. Orain arte nahikoa eduki dut antzerkiagaz, baina ez dut baztertzen noizbait jauzi hori egitea.

Aritz Rodriguez zaldibartarra, antzezten

ANTZERKIA • ARITZ MALDONADO

Martxoan estreinatu zenetik, hainbat emanaldi izan ditu Abadiñoko Gorakada antzerki taldearen 'Ulisesen Bidaia' antzezlana. Besteak beste, Basaurin, Gasteizen eta Eibarren antzeztu dute obra taldekideek, eta Espainian ere egon dira antzezlana aurkezten. Joan den astean eskualdean estreinatze aukera izan zuten, Zornotzan, eta domekan, ostera, Durangoko San Agustin kulturgunean egongo da 'Ulisesen Bidaia' ikusgai. Ulisesen azalean sartzen den Haritza Rodriguez zaldibartarra.

Zelan joan zen Zornotza Aretoko emanaldia?

Oso ondo. Jende asko joan zen, gainera. Obra sortzeko prozesuan bertan egon ginen, hamar eguneko entseatzan, eta hori ere abantaila bat izan zen; lekua ezaguna zitzaigun, eta hori eskertzekoa da horrelakoetan.

Zelako harrera izaten ari da antzezlana, orokorrean?

Oso ondo funtzionatzen ari den lana da. Erritmo aldetik, obra nahiko apurkorra da. Hau da, zerbait huts egiten badu, berehala igartzen da eta arreta osoagaz egin behar da lan antzeppen osoan zehar. Material oso potenteagaz egiten dugu lan, eta eszena bakoitzean mundu ezberdinak sortzen dira; horrek ikuslearen arreta garatzen laguntzen du. Tentsio handia eskatzen du lanak, polita da egiteko, eta are politagoa ikusteko. Talde lan oso neurtua da, zehaztasun handikoa; pieza batek

“Orain artean ez dut ikus-entzunezko lanik egin, baina ez dut baztertzen noizbait jauzi hori egitea”

huts egiten badu, obra guztian eragiten du. Zaila da egiteko, baina ondo irteten denean, asebetetzea ikaragarria da.

Zeri buruzkoa da antzezlana?

Ulisesen istorioan oinarritutako lana da. Omeroren odisean ikusitako pasarterik gehienak agertzen dira antzezlanean. Aurrekoan *Moby Dick*en egindakotik apur bat aldentzen saiatu ginen; hura oso ondo egon zen, baina zerbait ezberdina egiteko beharra sentitzen genuen, eta hau egitea izan da gure apustua. Eszenografia eta materiala burdinezkoak dira, hau ez da egurra bezain gozoa [*Moby Dick*erako egurra erabili zuten gehien bat]; musika, ostera, elektrikoagoa da, eta proposamena bera industrialagoa da, nolabait esateko; punkiagoa da guztia. Alde horretatik, arriskutsuagoa izan da guztia, gauza asko hartu behar izan ditugu-eta kontuan, baita soinu eta argi aldetik ere, baina, modu berean, horrek emaitza aberastu du.

Horrelako erronkek erakargarriago egingo dute zure beharra, ezta?

Bai, Jose Garcia zuzendariagaz egiten dudana hirugarren lana da; ez da konforme geratzen egindakoagaz, eta lanetan aurreko obra gainditzea bilatzen du. *La Vuelta Al Mundo* izan zen beragaz egin nuen lehenbizikoa. Hortik *Moby Dick*era egin genuen salto; bertako hizkuntza gordinagoa zen, ez hain umeentzat, beharbada. Arlo horretan, *Ulisesen Bidaia*guz jauzi kualitatiboa egin dugula uste dut, izan ere, lan

“‘Ulisesen Bidaia’guz jauzi kualitatiboa egin dugula uste dut; familia osoarentzako antzerkia da lan hau”

Elorrion jokatu da Bizkaiko Txapelketako udabarriko faseko hurrengo kanporaketa, bihar

Domekan Getxon jokatu den kanporaketan, ostera, Beñat Romero zornotzarrak eta Eneko Abasolo 'Abarkas' iurretarrak abestuko dute; 17:30etan hasiko da saioa

BERTSOLARITZA • A.M.

Bizkaiko Bertso Txapelketako udabarriko faseko hurrengo saioa bihar jokatu da, Elorrioko Arriolan. Aitor Esteban, Ander Elortegi, Iker Uriarte, Jon Arano, Ander Anakabe eta Unai Agirre bertsolariek abestuko dute bertan. Udabarriko fase hau azken txanpara iristen ari da. Domekan, hilak 13, Getxoko kanporaketan, Beñat Romero zor-

notzarrak eta Eneko Abasolo 'Abarkas' iurretarrak abestuko dute.

Bizkarra garaile Balmasedan
Joan den astean Balmasedan jokatutako kanporaketa Aitor Bizkarra bertsolari abadiñarrak irabazi zuen 196,5 puntu lortuta. Saio borobila egin zuen eta alde nabarmena aterazien gainontzeko bertsolariei. Jon Ander Urkiagak hirugarren amaitu

zuen saioa, 157,5 puntu lortuta. Beñat Molina laugarrena izan zen, 133,5 puntu erdietsita.

Bestalde, Euskal Herriko eskolarteko finalera sailkatu dira Gorka Pagonabarraga durangarra eta Iruri Altzerreka garaitarra. Pagonabarragak Bizkaiko eskolarteko txapela jantzi zuen Balmasedako finalean, gainera. Euskal Herriko finala ekainaren 9an jokatu da, Saran.



Bizkarra, Balmasedako kanporaketan.

Gremioen gida

anboto

Zurgintza

ATERPE АБОТЗА
EGUR ERAIKUNTZAK
TEILATU ETA BARRUKO LANAK

Asier Abendibar 635 74 84 65
Ander Maiztegi 655 73 75 51
www.carpinteriaaterpe.com

Zurgintza

leike aroztegia & diseinua
NEURRIRA EGINIKO PROIEKTUAK

www.leikearoztegia.com
Antso Estegiz, 3 Durango
Tlf.: 94 681 72 29

Iturgintza

UNAI GARAY
ITURGINTZA
BEROGINTZA
GASA

659 673 790
unaigaray@yahoo.es

Iturgintza

Mallabiena
M.Z.O. ITURGINTZA - GASA
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.

Mallabiena industrigunea, 6
48215 IURRETA · Tel.: 946 818 862
mallabiena@mallabiena.com

Iturgintza

Ubide
iturgintza
Iturgintza, gasa eta berokuntza

946 030 506 / 625 702 208
ubide@euskalnet.net
48200 DURANGO 188 PK.

Iturgintza

ALDEKOA-OTALORA
ITURGINTZA - GASA
BEROGINTZA - AIREA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA

info@aldekootalora.com
692 859 779

Zubiurre, 8 IURRETA
946 202 768
Ind. Arzubia - Pob. 13-14 **ABADIÑO**
944 071 791

Garbiketa

AZKARGI GARBIKETAK

Auzo elkarte, garaje eta obra osteko garbiketak


Goietza, 46 - 2 esk. ELORRIO
Tel.: 615 791 215

Dekorazioa

JAIO barnizatuak

Armairu eta era askotariko altzairuen lakadura eta guztietako zaharberritzeak egiten ditugu

Eitua Industrialdea, 45 Garaia A - BERRIZ
Tel./Faxa: 946 824 143 - Mug.: 658 758 421
info@jaiobarnizatuak.com
www.jaiobarnizatuak.com



Profesionalik onenak zure zerbitzura!

Volosi poloniarren ekitaldiak estreinatuko du XIX. Eleizetan jaialdia

Zapatuan izango da kontzertua, 20:00etan, Etxanoko Andra Maria elizan



Volosi boskotea Poloniatik dator

MUSIKA • ARITZ MALDONADO

Zapatuan, Volosi hari-boskotearen kontzertuagaz emango zaio hasiera XIX. Eleizetan jaialdiari. Urtero legez, herriko zenbait ermita eta elizatan izango dira kontzertuak. Domekan, Balaguéra taldea arituko da, eta Gaskoiniako Pirinioetako doinuak eskainiko ditu.

Bizkaiko jaialdirik originaletako bat da Eleizetan, izan ere, kontzertuak izaten diren lekuek ukitu

Domekan, 12:15ean, Balaguérak Gaskoiniako Pirinioetako doinuak ekarriko ditu

Doako autobus zerbitzua egongo da kontzertuetara joateko; 30 minutu lehenago irtengo dira

berezia ematen diete emanaldiei. Maiatzaren 26ra arte iraungo du programazioak, beste hiru kontzertuagaz. Antolatzaileek doako autobus zerbitzua ezarri dute kontzertuetarako. Emanaldia baino 30 minutu lehenago aterako da autobusa Gudari kaleko autobus geraldutik (45 minutu lehenago Bernagoitiko kontzertuaren kasuan).

Geure Durangaldea

Fernan Ruiz Larringan
Euskara teknikaria



Distantzia

Ortozik irten da ordubete lehenago klik baten bidez eskatu duen pizza hartzera. Irribarre egin dio bisera gorridun banatzaileari, arnasa hartu eta atea zarratu du. Berbarik ez. Seimilako batean baino oxigeno gutxiago duen baso ilunera itzuli da, kobrez barrubetetako plastikozko adarrak nahinon, sasitza ikaragarria. Pantailetako baten aurrean eseri eta diadema jantzi du. Murgildu da. Sinetsi eta onartu du hori dela bere bizilekua, oraindik inork ikusi ezin duen laino erraldoi orojale eta arriskutsu horren barrena, hain zuzen ere. Hor hazi da, umetatik ezagutzen baitu, eta munduarekiko harreman ia denak hortik bideratzen ditu. Esan daiteke, bada, laino erraldoi ikusezinari esker duela ia guztiaren berri, errealitate-tik deskonektatuta. Ahaztuta dauka, azkenekoz, noiz jantzi zituen oinetakoak, azkenekoz, gure planetan zehar ibiltzeko. Eguneko ordu gehienetan lainorik laino hegan ibiltzen den arren, haize umel, bero, gozo, kutsatua sentitzea zer den ez daki.

Azken aldian, sare sozialak aztertzen ari da, zabortege koloretsu horiek, hain erakargarriak, bortizkeria hauspotzeko tresna aukerakoak... Sozializazioan lagungarri, arazoak ditu aztergaietako batekin, distantziarekin; ez baitaki fisikoa, afektiboa eta birtuala bereizten. Horregatik erabaki du zapatilak jantzea eta kilometro bat zenbat den ikustea; pizzeriara iristeko urratsak kontatu nahi ditu, saltzaileak zein hizkuntzatan eta irribarre egingo dion jakin gura du, kamiseta zenbat bustiko duen, lainotzarretik kanpo goza daitekeen jakin gura du.

Gaur gauean izango da Zornotzako V. maketa lehiaketako final handia

MUSIKA • A.M.

Zornotzako Sleepers taldea, Durangoko Licenciado Vidriera eta Wicked Wizzard hirukote mungiarra lehiatuko dira jokoan dauden sariak lortzeko. 23:00etan, hogeina minutuko kontzertua eskainiko dute finalistek Zelaieta zentroan. Ondoren, sari banaketa egingo dute. Talderik onenaren saria 1.500 eurokoa izango da. Euskarazko abestirik onenaren saria, ostera, 500 eurokoa izango da. Horrez gainera, Zornotzako Karmen jaietan

kontzertua eskaintzeko aukera egongo da jokoan. Bederatzi talde berriri jotzeko aukera eskaintzea du helburu lehiaketa honek. Talde berri horien artean, Zornotzako Zeinke eta Ezlandap taldeek parte hartu dute. Bosgarren urtea du Ametx Gazteria udal erakundeak maketa lehiaketa hau antolatzen, eta taldearen pertsonalitatea, kontzertuaren kalitatea, moldaketen aberastasuna eta zuzenean duten potentziala hartzen dira kontuan irabazleak aukeratzekoan.



Wicked Wizzard da talde finalistetako bat.

ULISESEN BIDAIA
Gorakada Antzerki Taldea
Maiatzak 13, domeka
18:00etan

San Agustin KULTUR GUNEAN
Sanagustinalde, 12 · Tel.: 946 030 021 · sanagustin@durango.eus

www.plateruena.eus

PLATERUENA
PLATERUENA Kafe Antzokia
Landako Hiribidea, 4A, DURANGO
Tel.: 946 030 300
jaletxea@plateruena.net

Maiatzak 11 · 21:30ean
JAM SESSION
Kontzertua

Maiatzak 19 · 22:30ean
CYCLE+SKASTI
Kontzertua

Maiatzak 20 · 12:00etan
YOGIPUINAK
Irakurketa

YOGA ETA IRLINAK



Durangaldeko txokorik ederrena ARGAZKI LEHIAKETA



XEHETASUNAK

- Zein da zure **Durangaldeko txokorik gogokoena?**ARGAZKIA bidali eta azaldu zergatik duzun gustoko (**30-50 hitz**)
- Aurkezteko epea **Ekainaren 1era arte.**
- Argazkia eta azalpena, durangaldekoberbalagun@gmail.com helbidera bidali, edo whatsapppe zerbaki honetara: **639 400 786**
- Argazkiak durangaldea.blogspot.com blogean egongo dira ikusgai.
- Saria: **2 pertsonentzako bazkari edo afaria KOBICA jatetxean (Durango)**

☎ **639 400 786**

🌐 www.durangaldea.blogspot.com
✉ durangaldea@aeek.eus
📱 Durangaldeko berbalagunak

Arretatuak eta lagunak



Elkarrekin





Roberto Cuevas Martin
Balmaseda futbol taldeko jokalaria.
Abadiño | 1981

“Gol bat gehiagogaz hamarrera helduko nintzateke; erretirorako kopuru polita dela uste dut”

36 urtegez futbola utzi eta bizitzako beste etapa bati ekingo dio Roberto Cuevas

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Bilbao Athleticen, Eibarren, Murtzian, Meridan, Alavesen eta beste hainbat taldetan jokatu du Roberto Cuevas. Futboleko nomada izan da, Balmasedan egonkortasuna aurkitu duen arte. Sei urte daramatzan klubean jarriko dio amaiera bere ibilbideari asteburu honetan.

Asteburuan amaiera puntua jarriko diozu ibilbide luze bati. Horrelako kontuekin nostalgiko jartzen den horietakoa zara?

Nostalgiko ez dakit, baina, egia esan, halako tristura bat eragiten dit. Baina, tira, bizitzako beste etapa bat da eta oso erabaki meditatua. Behar den moduan amaitu gura

dut eta familiari denbora gehiago eskaini gura diot. Emazteak denbora asko darama nigan, eta, sarritan, toki batetik bestera ibiltzea egokitu zaio. Beti babestu nau eta lagundu dit. Bada hori guztia itzultzeko unea. Urtebeteko alaba bat ere badut, eta horregaz guztiagaz gehiago gozatu gura dut orain.

Azkenengo urtea dela dakizunean, beste modu batera aurre egiten zaio denboraldi horri?

Bai, partiduei beste modu batera aurre egiten diezu. Ni minutu guztiak gozatzen saiatu naiz. Gainera, gauzak ondo irteten ari zaizkit. Bederatzi gol daramatzat eta denboraldi ona egiten nabil.

Zer eskatzen diozu zure ibilbideko azken partiduari?

Zaleen aurrean gol bat sartuz eta partidua irabaziz amaitzea polita litzateke. Gol bat gehiago sartuta hamarrera helduko nintzateke, eta erretirorako kopuru polita dela uste dut. Azken batean, aho zapore on bategaz amaitu gura nuke.

Sei urte daramatzazu klubean. Zure ibilbide osoan falta izan zaizun egonkortasuna azken txanpan aurkitu duzu.

Balmasedara batu nintzenean, nire azkenengo taldea izango zela pentsatuz batu nintzen. Balmasedan bizi gara eta han egiten dut lan. Futbolean profesional izatea apur bat albo batera utzi nuenean, nire aldeko apustua egin zuten eta oso gustura egon naizen kluba izan da.

Futbolak ogibide izateari uzten diot, desberdin dastatzen da?

Dudarik barik. Lehiakorra izan naiz betidanik, neu nintzen neure buruari presioa sartzen lehenengo, baina, jakina, ez da berdina Bigarren Mailan edo Hirugarren Mailan aritzea eta, gainera, goian ibiltzeko derrigortasunik ez duen talde bategaz. Desberdina da.

Hasi zuten tokian amaitzea erabakitzen dute batzuek. Balmaseda Abadiñotik urrun geratzen da?

Abadiñon hasi nintzen eta gustatuko litzaidake han amaitzea, baina dudan adinagaz eta Balmasedan bizita... Konplikatu izango zen. Edozelan ere, iazko urte amaieran betereanekin partidu bat jokatu nuen Abadiñon. Gallegoren oroienezko partiduan izan zen.

Zelakoa izan zen berriro Astolako futbol-zelaia zapaltzea?

Politak. Nire aita da zelaiko belarra mozten duena. Klubeko presidentea ere izan zen sasoi batean. Abadiño klub familiarra da niretzat.

Talde askotan izan zara eta sekula ere ez urte bi baino gehiago. Uneren batean nekagarria egin zaizu futbola?

Egon naizen toki denetan gustura egon naiz, inogaz arazorik izan barik, eta taldeetatik modu onean irteten naiz beti. Gustura eta harro nago izan dudana ibilbideagaz. Lortu dudana guztia neure lanari esker

“**Inork ez dit ezer erregalatu. Gustura eta harro nago futbolean izan dudana ibilbideagaz**”

lortu dut, inork ez dit ezer erregalatu. Kontzientzia oso garbi dudala erretiratu naiz.

Athleticen lehenengo taldeak konbokatzen zintuen behin, baina ez zenuen debutatzeko aukerarik izan. Arantza hori geratu zaizu?

Bai, arantza txiki hori geratzen zait. "Gutxienez debutatu izan banu" eta antzerako pentsamenduak, baina futbola horrelakoa da: tren batzuk pasatzen dira eta beste batzuk ez. Nire paretik igaro diren denak aprobetxatzen saiatu naiz.

Abentura horretatik, zer gomuta gertatu zaizu betirako?

Toki askotan egindako lagunekin geratzen naiz. Madrilerako banoa, badakit bost-sei telefonora lasai deitu dezakedala. Berdin Murtzian, Extremaduran... Horregaz geratzen naiz.

Traña-Matienakoa izanda, ibili zara San Prudentzio jailetan?

Urteak dira ezin izan naizela joan. Ea hurrengo urtean kuadrillagaz paella janera noan. Nire anaia eta bere kuadrilla txopoa jasotzen ibiltzen direnetakoak dira.

Asteko kirolaria



CHRISTIAN GULIN REYES

Abadiño, Areto-futbola

Joan zen asteburuan Abadiñoko Txopoa taldeak mailaz igotzea lortu zuen. Abadiñoko areto-futboleko taldeak bigarren urtez jarraian

“Taldekideok harreman bikaina dugu eta hori nabaritu egiten da kantxan”

Abadiñoko Txopoa taldeko kidea eta sortzailea da Christian Gulin gazte abadiñarra

eskuratu du igoera, eta datorren denboraldian Bizkaiko Goren Mailan arituko da.

Denboraldi hasieran espero zenuen mailaz igotzea?

Egia esan, gure helburu nagusia inoiz ez da izan mailaz igotzea. Lagunartean ondo pasatzea eta futbolean jokatzu disfrutatzea izan ditugu beti helburu. Hala ere, egia da partiduak irabaztera joaten gara eta mailaz igotzea polita dela.

Partidu bi gelditzen zaizkizue jardunaldia amaitzeko, eta liga irabazteko aukera duzue. Nola ikusten duzu taldea?

Taldea ilusioagaz eta gogotsu dago. Hala ere, badakigu liga irabaztea zaila izango dela, sailkapen nagusian lehen postuan dagoen taldea indartsua da eta. Baina borrokatuta, dena da posible.

Zure ustez, zein da Abadiñoko Txopoa taldearen indargunea?

Denok lagunak gara. Taldeki-

deok harreman bikaina dugu eta hori nabaritu egiten da kantxan. Bestalde, zaleak ere bikainak ditugu. Partidu guztietara etortzen dira, ez dute hutsik egiten eta hori gauza handia da guretzat.

Lehen, Elorrioko Buskantzan jokatzeko zenuen. Baina, orain urte bi, Abadiñon taldea sortzea erabaki zenuen. Taldea sortu zenuenean, hirugarren denboraldirako Bizkaiko Goren Mailan jokatzeko egongo zinetela uste zenuen?

Ez. Hasieran, bost lagun batu ginen bakarrik, eta taldea sortzea oso zaila izan zen. Garai hartan, askok ez genuen futbolean jokatzeko gogorik eta Abadiñoko Txopoa taldeak lagunartean ondo pasatzeko aukera ematen zigun. Orain urte bi Bizkaiko Goren Mailan egongo ginela esan balidate, ez nuen sinetsiko.

Denboraldia amaitzeko duzue. Jarri zarete jada hurrengora begira?

Ez. Momentu honetan liga irabaztea dugu helburu eta horretan zentratuta gaude. Aurtengoa amaitu ostean, taldekideok batu eta dena pentsatzeko ordua izango da. Orain ez dakigu denok jarraituko dugun taldean edo norbaitek taldea uzteko asmoa duen.

Ligako txapelkunek zaleen berotasuna jasoko dute zapatuan, igoerako fasean zentratu aurretik

Asteleheneko zozketan jakingo da Durangoko Kulturalak nor izango duen aurkari Bigarren B Mailara igotzeko kanporaketan

FUTBOLA • JOSEBA DERTEANO

Durangoko Kulturalak Hirugarren Mailako liga irabazi du. Bere multzoan, denboraldiko talderik onena izan da. Klubaren historian bigarrenez irabazi dute liga. Aurrekoa orain 31 urte lortu zuten, 1987an hain zuzen.

Denboraldian zehar batutako puntu sortari esker, abantaila politagaz heldu da ligako azkeneko txanpara. Ondorioz, hainbat aukera ditu igoera lortzeko. Lehenengoan, ustebakean, huts egin zuen. Nork pentsatuko zuen hamar partidu galdu barik —bederatzi garaipen— zeramatzan taldeak etxean eta zaleen aurrean 0-1 galduko zuenik Deustoren kontra. Baina errekamarako bigarren balagaz bete-betea asmatu zuen. Joan zen asteburuan 0-1 irabazi zion Alaves B taldeari, Xabier Infante sartutako gol bati esker, eta taldeko jokalariek Gasteizen ospatu zuten liga garaipena.

Bihar, 19:00etan, ligako azken partidua jokatuko dute etxean,

Santutxuren kontra. Etxeko lanak eginda, zaleen berotasuna jasotzeko unea izango da, liga txapelketa eta Errege Koparako sailkapena ez direlako urtero lortzen. Partidurako sarrera doakoa izango da.

Bigarren B Mailara begira

Astelehenetik aurrera, jokalariei eta zaleei gozatzeko eta sufritzeko aste bi geratuko zaizkie oraindik. Bigarren B Mailarako igoera kanporaketa baten baitan dago.

Astelehenean egingo dute zozketa eta hurrengo asteburu bietan jokatuko dituzte joaneko eta itzuliko neurketak. Azkenengoz, 2006an igo ziren Bigarren B Mailara, baina hurrengo urtean jaitsi egin ziren.



Alaves B taldeari 0-1 irabazita, Gasteizen ospatu zuten igoera Kulturalako jokalariek. Luis Iturrioz.

Erkidegoan aitzindaria den duatloia antolatu dute, zapatarako, Zornotzan

Parte-hartzaileak taldeka eta erlojupeko formatuan arituko dira Zornotzako kaleetan

DUATLOIA • JOSEBA DERTEANO

Amorebieta-Etxano Triatloi Taldeak Euskal Autonomia Erkidegoan aitzindaria den duatloia antolatuko du zapatuan: taldekako erlojupekoa. Ondo irtetzen bada, datorren urtean Euskadiko txapelketa izatea eskatuko dute.

Nafarroako Egues herrian egingen den duatloitik hartu dute ideia. "Gu urtero joaten gara eta parte-hartzaileak gehienak euskaldunak dira. Proba polita da taldean parte hartzeko. Handik ekarri



Amorebieta-Etxano Triatloi taldeko kideak entrenamendu batean.

dugu ideia", adierazi du Amorebieta-Etxano Triatloi Taldeko Edu Lakuntzak. Sasoi batean Hondarribian egingen den eredu bereko triatloia ere gogoratu du. "Urte batzuk joan dira, baina jendeak oraindik gogoratu ohi duen triatloia da", dio Lakuntzak.

Atletismo-pistan

Bihar 20 bat talde batzea itxaroten dute. Larrea kirolegiaren atzealdeko atletismo-pistatik txandaka eta minutu bateko aldeagaz irten go dira, 15:00etan hasita. Lehenengo, korrika egingo dituzte bost kilometro. Kalera irten aurretik pistari itzuli bat emango diote. Ondoren, 19,4 kilometro egingo dituzte bizikletan eta, amaitzeko, beste 2,5 kilometro korrika.

Adituaren txokoa

Garazi Sampedro Arando
Mendi lasterketak



Kopak, txapelketak eta abar

Badirudi mendi lasterketen denboraldia hasi baino ez dela egin, baina 2018a hasi zenetik hainbat gertakari daude kontatzeko. Etxetik hasi eta mundu zabalerako errepasoa egin dezagun.

Apirilaren 22an Oihana Azkorbebeitia abadiñarrak Euskal Herriko lineako mendi lasterketen txapela jantzi zuen Aloñan, Oñatin. Imanol Goñik ere eraman zuen berea Natxituara. Betiko izen ezagunak, beraz, sailkapenen lehen ilaretan. Onena opa diet Euskal Selektziozko bi lasterkari bikain hauei Munduko Kopan.

Txapelketei dagokienez, Ultra modalitatea Silvia Triguerosen ondo ezagutzen duen Beasaingo Ehun Miletan jokatuko da uztailean. Sasoi dagoela argi utzi zuen Zubiriko Nafarroa Xtrem lasterketan errekor berria ezarriz irabazi zuenean eta Runela Trail luzean bigarren postua lortuz.

Bestalde, lasterketen kopa ordezkatzuz, aurten berrikuntza bat ekarri digute Euskal Mendizale Federazioko arduradunek. Iaz egindako kopa konbinatuak arrakasta handirik lortu ez zuela ikusita, aurten mota askotariko hamazortzi lasterketaz osaturiko zerrendarekin ranking bat osatzea dute helburu. Momentuz, Maite Etxezarreta azpeitiarrak du ranking horretako testigua, Lorena Guinaldo eta Mayi Mujika korrikalarien aurretik. Mutiletan Asier Larruzea, Igor Urionabarrenetxea eta Borja Santiago zornotzarra doaz aurrean.

Munduko Koparekin amaituz, 50 km baino gutxiagoko lasterketen modalitatean, Holly Page britainiarra eta Andorrako Oscar Casal doaz lehenengo. Ikusiko dugu kopako bigarren etapa den Zegaman zer gertatzen den.

CERAMICAS
MACOBER
MATERIAL DE CONSTRUCCION
Chimeneas
ERAIKUNTZAKO MATERIALA
ZERAMIKA ETA GRESA
Eltua Industr., 66 BERRIZ - Tel.: 946 827 890
Tronperri kalea, 1 DURANGO - Tel.: 946 811 727

BODEGUILLA
TRANA-MATIENA
Tel.: 94 681 43 85

ALDEKOA-OTALORA iturgintza
ITURGINTZA - BEROGINTZA - AIREA - GASA
MANTENIMENDU INDUSTRIALA
info@aldekoaotalora.com - 692 859 779
Zubiurre, 8 IURRETA - 946 202 768
Ind. Arzubia - Pab. 13-14 ABADIÑO - 944 071 791

Eguazteneko 17:00ak arte jasotako iragarkiak bariku horretako alean argitaratuko ditugu. Beranduago jasotakoak hurrengo alean



HIGIEZINAK
TEKNOLOGIA
LANA/NEGOZIOAK
DENETARIK
IBILGAILUAK
HARREMANAK
AISIA/KIROLA
FAMILIA/ETXEA

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

Interneten eta paperean, doan: Partikularrentzako. Erregistratu www.anboto.iragakilaburrak.com webgunean eta jarri zure iragarkia (paperean argitaratu aukerari eman behar zailo) edo bidali mezua: anboto@anboto.org helbidera. Nahiago beduzu deitu 94-623 25 23 telefono zenbakira.

Paperean, ordainduta: Enpresentzako. Iragarki laburretatik bereiztu eta lauki batean nabarmenduak. Hainbat prezio eta neurri aukeran. Kontsultatu 94-621 79 02 telefonoan.

Higiezinak

ETXEBIZITZAK

ETXEBIZITZAK SALDU

Durango. Etxea salgai Durangon, Juan Itziarko kalean. Bi logela, egongela, sukaldia, komuna eta despentsa ditu. Berogailua. Dena berriztuta. Deitu eta etorri. Tel.: 685-71 69 45
Tel.: 616-93 74 26

Durungaldea. Berriztutako apartamentua salgai Lekeition. Apartamentu eguzkitsua eta xarmaduna. Hiru hondartzetara bistak ditu.
Tel.: 656-77 17 32

Lana Formakuntza

LAN ESKARIAK

LAN ESKARIAK ETXEO LANAK

Etxeak eta tabernak garbitzen ditut. Lan bila nabil etxeak edo tabernak garbitzen. Baita pertsona nagusiak edo umeak zaintzen ere.
Tel.: 602-11 06 74

LAN ESKARIAK PERTSONAK ZAINDU

Kanpoko langilea lan bila. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen, garbiketan, zerbitzari lanetan... lan bila nabil. Eskarmentua daukat eta berehala lanean hasteko prest nago. Orduka, asteburuetan edo gauzez lan egiteko prest.
Tel.: 619-20 69 37

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan. Goizez edo arratsaldean lan egiteko prest.
Tel.: 744- 48 52 27

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Baserrietara joateko prest, gidabaimena daukat eta. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 608-60 85 09

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 602-13 98 07

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Orduka, goizez, arratsaldean zein gauzez lan egiteko prest. Erreferentziak ditut.
Tel.: 658-99 50 63

Nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Nagusiak eta umeak zaintzeko prest nago, baita etxeko lanetarako ere. Tel.: 688-43 03 80

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona arduratsua lan bila nabil pertsona nagusiak edo

umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Tel.: 664-89 92 27

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan.
Tel.: 663-60 59 28

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Esperientziadun pertsona lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langile moduan. Berehala lanean hasteko prest.
Tel.: 612-43 23 88

Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Pertsona arduratsua lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea gauzez lan egiteko prest. Tel.: 602-08 96 62

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere.
Tel.: 632-29 16 73

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan.
Tel.: 632-88 97 96

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan. Baita lan bila nabil mendiko langile moduan ere.
Tel.: 602-01 61 86

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barneko langilea lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen.
Tel.: 603-49 86 05

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Barneko langilea lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen.
Tel.: 695-07 41 17

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Neska arduratsua lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko, kanpoko edo ordukako langile moduan.
Tel.: 611-27 44 29

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Barneko zein kanpoko langilea lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Orduka lan egiteko prest. Tel.: 632-10 68 75

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen lan bila nabil. Baita garbiketa lanak egiten ere. Kanpoko edo barneko langilea, orduka, asteburuetan eta gauzez lan egiteko prest. Tel.: 631-70 05 73

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen edo garbiketa lanetan lan bila nabil. Barneko edo ordukako langilea. Eskarmentua eta erreferentziak ditut.

Tel.: 602-10 80 32

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita etxeetako edo tabernetako garbiketarako egiten edo zerbitzari edo sukaldari moduan ere. Barneko zein kanpoko langilea. Eskarmentu eta erreferentziak. Berehala lanean hasteko prest. Tel.: 638-58 46 71

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila nabil. Baita garbiketa edo zerbitzari lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea, lanaldi osoan, erdian, orduka, asteburuetan edo gauzez lan egiteko prest. Eskarmentua dut eta berehala lanean hasteko prest nago.
Tel.: 680-22 60 39

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Eskarmentudun langilea lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita zerbitzari edo garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea lanaldi osoan, erdian, orduka edo asteburuetan lan egiteko prest.
Tel.: 631-06 20 76

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Eskarmentudun langilea lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Baita baserriak zaintzen edo eraikuntza lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea, gauzez, asteburuetan, orduka, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 632-11 45 93

Nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Nagusiak edo umeak zaintzeko lan bila nabil, baita garbiketan ere. Barneko, orduka zein gauzez lan egiteko prest. Tel.: 631-89 17 09

Nagusiak zaintzen ditut. Nagusiak zaintzen lan egin nahi dut, edota garbiketan. Barneko langile moduan.
Tel.: 631-14 49 98

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Lan bila nabil. Barneko, kanpoko zein ordukako langile moduan. Tel.: 632-78 57 54

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea.
Tel.: 612-46 90 29

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita etxeetako edo tabernetako garbiketarako egiten, zein zerbitzari lanak egiten ere. Asteburuetan edo gauzez lan egiteko prest.
Tel.: 632-57 31 80

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak

zaintzen. Baita garbiketa lanak egiten ere. Tel.: 632-41 25 57

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Tel.: 674-40 47 55

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen barneko langile moduan. Tel.: 663-60 59 28

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko, ordukako edo asteburuetako langile moduan.
Tel.: 664-89 92 27

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea. Tel.: 602-49 37 58

Arratsaldetarako lan bila. Esperientzia handiko eta erreferentziadun neska euskalduna arratsaldetarako lan bila. Umeak zaintzen, etxeko lanetan. Interesa baduzu jarri harremanetan:
Tel.: 688640604. Mila esker!

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketa lanetan lan bila nabil. Baita zerbitzari edo sukaldari moduan ere. Barneko langilea, gauzez, asteburuetan, orduka, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 631-38 47 90

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Eskarmentudun langilea lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Kanpoko langilea, gauzez, asteburuetan, orduka edo lanaldi erdian lan egiteko prest.
Tel.: 691-06 21 19

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Eskarmentu eta erreferentziadun langilea lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko langilea, gauzez, asteburuetan, orduka, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest. Tel.: 632-57 16 20

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Emakume arduratsua lan bila nabil nagusiak edo umeak zaintzen, zein garbiketa lanetan. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 643-13 01 35

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Neska arduratsua lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea.
Tel.: 632-99 90 79

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Pertsona nagusiak edo umeak zaintzen lan bila nabil, baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko

langilea. Tel.: 663-60 59 28

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Pertsona nagusiak zaintzen lan bila nabil. Baita garbiketa lanetan ere. Barneko zein kanpoko langilea.
Tel.: 610-89 28 39

Tabernetan lan egiteko prest. Langile euskalduna asteburuetan tabernetan lan egiteko prest.
Tel.: 655-73 29 28

Nagusiak zaintzen lan bila nabil. Garbiketan eta nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago. Tel.: 688467436

Umeak eta nagusiak zaintzen ditut. Umeak eta nagusiak zaintzeko prest nago, baita garbiketarako eta etxeko zerbitzuetarako ere.
Tel.: 698-23 51 57

Pertsonak zaintzen lan bila nabil. Umeak eta nagusiak zaintzeko prest nago, baita garbiketarako eta etxeko zerbitzuetarako ere.
Tel.: 698-22 82 70

Pertsona nagusiak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen baita okindegietan ere. Esperientzia dut okindegietan lanean.
Tel.: 605-46 99 89

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita taberna edo atarietako garbiketa lanak egiten ere. Kanpoko zein barneko langilea, gauzez zein orduka lan egiteko prest.
Tel.: 682-18 12 74

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Kanpoko langilea, gauzez, asteburuetan, orduka, lanaldi osoan edo erdian lan egiteko prest.
Tel.: 690-68 73 95

Lan bila nabil pertsonak zaintzen. Barneko zein kanpoko langilea lan bila nabil pertsona nagusiak zaintzen zein garbiketan lanetan. Esperientzia dut. Tel.: 631-70 68 46

Pertsona nagusiak eta umeak zaintzen ditut. Lan bila nabil pertsona nagusiak edo umeak zaintzen. Baita garbiketan edo sukaldetan ere. Barneko, kanpoko zein ordukako langilea. Tel.: 643-13 84 71

LAN ESKAINTZAK

LAN ESKAINTZAK OSTALARITZA

Taberna baterako zerbitzaria behar da. Taberna baterako zerbitzari bat behar da. Gehien bat asteburuetan lan egiteko. Bidali curriculum-a argazkiarekin helbide honetara: sukatxo@hotmail.com

Botikak

BARIKUA, 11 · 09:00-09:00

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrngoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

ZAPATUA, 12 · 09:00-09:00

BAZAN DIAZ Uribarri 5 - **DURANGO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrngoetxea 5 - **ZORNOTZA**

09:00-13:30

CAMPILLO Montevideo
etorb. 24 - **DURANGO**

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - **DURANGO**

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

DE DIEGO Intxaurrenondo
22. - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE,
San Miguel 15 - **ZORNOTZA**

MELERO, Rosa Mari
San Pedro 31 - **ZORNOTZA**

JAIO-OLABARRIETA
Errekakale 6. - **ELORRIO**

EGUREN, ISABEL
Trañabarren 15. - **ABADIÑO**

09:00-14:00

IRIGOIEN Bixente
Kapanaga 3 - **IURRETA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

DOMEKA, 13 · 09:00-09:00

IRIGOIEN Bixente
Kapanaga 3 - **IURRETA**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrngoetxea 5 - **ZORNOTZA**

ASTELEHENA,
14 · 09:00-09:00

SAGASTIZABAL
Askatasun etorb. 19 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrngoetxea 5 - **ZORNOTZA**

MARTITZENA,
15 · 09:00-09:00

NAVARRO Artekalea 6 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrngoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUAZTENA, 16
09:00-09:00

UNAMUNZAGA Muruetatorre
2C - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrngoetxea 5 - **ZORNOTZA**

EGUENA, 17 · 09:00-09:00

BALENCIAGA
Ezkurdi plaza 8 - **DURANGO**

IRUARRIZAGA, KARMELE San
Miguel 15 - **ZORNOTZA**

09:00-22:00

SANCHEZ, MIREN ITZIAR Urbitarte
poligonoa, 4 P8 - **ABADIÑO**

SARASKETA, DIEGO Luis
Urrngoetxea 5 - **ZORNOTZA**

Zorion Agurrak

ZORIONAK@ANBOTO.ORG · EGUAZTENKO 14:00AKARTEKO EPEA



GOZATU
GOZOTEGI-OKINDEGIA

Ermodo, 11 DURANGO
Tel.: 946 201 663
gozatudurango@gmail.com
facebook: Gozatu Gozotegia

Hmabostean behin jasotako zorion-agurren artean **tarta bat zotz egingo dugu**. Zozketna parte hartzeko bidali kontakturako datuak zorion agurrekin batera.



Maiatzaren 6an, **Manexek** 9 urte bete zituen. Zorionak, poxpolin abadiño eta oromiño familiaren partez! Jarraitu holako jator eta alaia izaten!



Maiatzaren 5ean gure etxeko sorgintxo polittek 4 urte bete ebazan. Zorionak eta mosu handi bat **Elene** etxeko danon partez!



Zorionak, **Garazi!** Hamazazpian betezen dituzu urteak. Jarraitu horrela, alaia, jatorra eta arduratsua izaten. Musu potolo bat maite zaitugun guztion partez.



Zorionak, laztana zure 7. urtebetetzen. Jarraitu orain arte bezalako neska jatorra izaten. Mosu handi bana etxeko danen partez.



Zorionak, **Garazi** eta **Naiare!** Gure etxeko txikiek joan zan zapatuan 8 urte bete ebazan. Muxu handi bana, eta ondo pasau!



Zorionak eta urte askotarako, **Andoni**, Ondarru eta Matiena aldetik! Besarkada handi bat, jauna! Ez aldatu, segi horrela!



Zorionak, mutil handi! Eguaztean 11 urte bete zituen **Ekainek**. Mosu handi bat zure familia eta lagunen partez!

Eguraldia

ZAPATUA 🌧️ 13° / 6°



ASTELEHENA 🌧️ 16° / 11°



EGUAZTENA 🌧️ 15° / 9°



DOMEKA 🌧️ 19° / 6°



MARTITZENA 🌧️ 14° / 9°



EGUENA 🌧️ 19° / 10°



hitz artekalea 23, durango
liburudenda 946 810 776
info@hitzliburudenda.com

#nobedadeak

KEINU KONPLIZEAK
Karlos Cid Abasolo (2018)

NIRE AHOTSA
José Fraguoso (2018)

MUGIRO BILA
Don Inorrez (2018)

DIBA
KOOPERATIBA

Durangaldeko
Baserritarren
Elkartea

Murueta, 6 ABADIÑO - Tel.: 94 681 87 92

“Nepalekoa bizitako esperientzia onenatarikoa eta, aldi berean, gogorrenatarikoa izan da”

Mendiagaz lotutako edukiak jorratzen ditu Amaia Larruzeak 'Mendialdiak.com' blogean, lehenengo pertsonan. Mendi ihesbide duen zornotzarra Nepalen izan da, Alex Txikonegaz

AKUILUA • AITZIBER BASAURI

Aitarengandik jaso du Amaia Larruzeak mendiarekiko duen grina. Neurri batean, ogibide bihurtu duen pasioa. Mendiagaz lotutako edukiak eskaintzen ditu 'Mendialdiak.com' blogean kazetari zornotzarrik, euskaraz. Otsailean Alex Txikonegaz Nepalen bizitako esperientzia ere grabatu zuen youtuber honek, eta laster partekatuko du bere jarraitzaileekin.

Ikasketa proiektu moduan sortu zenuen 'Mendialdiak.com', baina bost urte joan dira ordutik.

Mendia eta moda, biekiko grina handia dut, eta betiko zalantza izan nuen hasieran. Baina, mendiagaz lotuta, euskara aldetik gabezia bat zegoela ikusi nuen. Dimako Zizetan mendi martxari buruz idatzi nuen lehenengo post-a, eta, bat-batean, mila bisitatik gora jaso zituen. Horrek aurrera egitera animatu ninduen. Bada, kronikak idazten, argazkiak ateratzen... hasi nintzen. Egindako mendi martxak lehenengo pertsonan kontatzen ditut, nire esperientziatik; eta mendi lasterketak, argazkien bitartez. Bideoak eta elkarrizketak ere lantzen ditut. Hainbat ate zabaldutuz dizkit.

Hutsune bat zegoela diozu.

Bai, zerbait berezia eskaini neza keela pentsatu nuen. Blog arrakastatsu asko sailkapenak eta martxa edo lasterketetako datak ematera mugatzen dira. Nik martxa edo lasterketa nolakoa izan den kontatzen dut, ibilbide horiek ezagutzeko bidea zabalduz, hurrengoan parte hartzerantz animatuz. Ibilbide berriak proposatzea ere bada helburua. Argazkiak parte-hartzaile guztiei ateratzea gustatzen zait, ni ere atzetik datorren horietakoa naiz eta, bakoitzak bere tartea izateko.

Mendia da zure habitat naturala?

Bai. Mendian sentitzen naiz aske, libre. Nire ihesbidea da. Norbere burua ezagutzeko, bakoitzaren gaitasunak azalertzeko lekua izan behar du mendiak. Sufritzen ikasteko lekua ere bada, eta horrek asko laguntzen du bizi-tzan.

Mendia zuzenki gozatzen tokiren bat aukeratu behar banu, Atxarte esango nuke. Askotan kanpora begiratzen dugu, baina aurrean dugunak ez du parakorik. Durangaldeko orografia oso alpinoa da eta maiteminduta nauka.

Moda-zalea ere bazara.

Oso. Baina sare sozialen bidez ibiltzen naiz gehiago moda kontuetan. Hala ere, iaz, Mendialdiak arropa lerro bat ateratu nuen, arrakastatsu handiaz. Kamiseta, gona eta txalekoa atera-

nituen. Arropa jantzita ikustea polita da, eta jende pilo ezagutzeko aukera eman dit.

Kirolari amorratua zara?

Ez hainbeste! Kirola egiteko halako presio soziala ere badago, eta, azkenean, motibazioa galtzen da. Mendi, korrika egitea... gozatzeko tartea hartu behar da, eta presio hori bideratzen jakin. Horretarako, hainbat kirol uztartzea oso garrantzitsua da. Urtebete inguru da eskalatzen hasi nintzela eta, orain, bizikletan hasi gura dut, mendiagaz lar ez itsutzeko. Bestela, mendiak ez dizu behar duzun hori emango, kendu egin diezakezu.

Mendira, korrika ala oinez?

Nepaletik oinez ibiltzeko gogoagaz etorri naiz. Sufritzeko gogoagaz ere bai. Urrian Hiru Haundiak egin gura ditut, nahiz eta esan ez dudala inoiz iraupen

luzekorik egingo...

Bada hor eztaba da bat...

Bai. Oreka bat lortu behar da, muturretar joan barik. Mendi martxen esentzia galdu egin dela apur bat esango nuke, baina korrika dabilzanentzat aukera oso ona da ibilbide mar-

katu bategaz, segurtasunez, eta buruhauste handirik barik kilometro asko egiteko.

Alex Txikonegaz izan zara Nepalen. Nolako esperientzia izan da?

Bizitako esperientziarik onenatarikoa eta, aldi berean, gogorrenatarikoa izan da. Komunikazio arloan urte bi daramatzat Alex Txikonegaz lanean, eta hura zer den jakin gura nuen. Oso gogorra egin zitzaidan, trekkinga eta lana uztartu behar izan nituelako. Hori izan zen zailena. Ez hainbeste muturreko hotza. Esperientziak gogortu egin nau.

Errepikatuko duzu?

Bai. 5.330 metrotara egotea zer den ikusi dut, eta horrek eskatzen duena. Esperientzia izugarria izan zen Khumbuko turrustatik munduko glaziarrak handiena ikustea. Prentsa-oharra Nepaletik bertatik idazteak ere badu beste zerbait.

Youtuberra ere bazara. Mendi bizitakoak partekatzen dituzu?

Bai. Mendiaren esentzia bete-betean erakutsi gura dut. Asko jarraitzen dut youtube, eta moda dut inspirazio mendiaren mundura gauza berriak ekartzeko. Hala ere, neuk egiten dut dena, eta zaila egiten zait askotan. Honetaz bizi diren youtuberrak laguntza izaten dute. Bideo eta ideia piloak ditut, baina ordu asko behar dira. Horrek mugatu egiten nau apur bat. Nepaleko esperientzia ere grabatu dut eta, orain, bideoa egin gura dut.

Modan dago korrika egitea. Zer du?

Katigatu egiten du. Dena den, kilometroei errespetua galdu diegu. Mendi korrika zebiltzanak zoroak ziren lehen. Orain, oinez doanari galdetzen zaio nolatan ez doan korrika. Emakume gehiago ere ikusten dira korrika; mendi martxetan gehiago lasterketetan baino. Ez da erraza eta bertigo pixka bat ematen du, baina parte hartzerantz animatu gura ditut neskak.

Amaia Larruzea

Motxobe

Kazetaria; mendiko blogaria eta argazkilaria
Zornotza | 1993

Lau-hortza

Bixente Aizpurua Eguren Irakaslea



Eskerrik asko eta zorionak!

Komunikabideetan honengatik edo horrengatik ezagunak direnen berriak azaltzen zaizkigu eta gure jardunetan beraien aldeko edo kontrako iritziak kanporatzen ditugu, baina herri bateko historiaren zutabeak hor isilean, inurriak lez, lanean dabilzan pertsona anonimoek osatzen dituzte. Lerro hauek, tarteko pertsona xume horien garrantzia goraiatu eta txalotu nahiko nuke. Gehiengo horren tartetik niretzat eredu garria den bikote bat egiten ari den bidea aipatu eta zorionduko dut: nire gurasoak.

Aita, Joxe, Eibarren Bigarren Errepublikan aldarrikatu zen egunean jaio zen, 1914ko apirilaren 14an. Bost urtetara aita Errepublikaren alde borrokan zebilela hil zuten eta beste askoren lez oraindik ez da azaldu bere gorpua. Handik urte batera baserria erre eta ezer gabe geratu ziren eta hortik aurrera egoerari buelta emateko lana eta lana izan zen euren egunerokoa.

Ama, Felisa, bi urte gazteagoa. Umetan artzain eta neskatotu zenean neska, hasieran kale inguruan, baina egokitzen ez zenez aita bizi zen ondoko baserri-erori zen eta bertan ezagutu eta maitemindu ziren.

1956ko apirilaren 21ean, ama jaio zen eguna, ezkondu ziren. Aurten 62 urte ezkondu zirela.

Beraien bizimodua gogorra izan da. Aita egunez baserrian, pinu botatzen, landatzen edo idiekin enborrak garraiatzen eta ahal zenean lo apur bat egin ondoren gauean tailerrera. Ama eta amama baserriko lanetan eta 3 seme-alaba aurrera ateratzen. Eskolara eguraldi txarra egiten zuenean edo iluntzean.

Nahiz eta bizimodu gogorra izan, bazekiten bizitza latz horri irriño batzuk ateratzen.

(Jarraituko du)

ibaizabal
IKASTOLA

- Konfidantzan, ikastola -

idazkaritza@ibaizabalikastola.eus
Tel.: 946 215 877
www.ibaizabalikastola.eus

BATXILERGOA

Aurrematrikulazioa: Maiatzak 14ra arte.
Matrikulazio epea: Ekainaren 20tik uztailaren 6ra
Ate Irekiak: Maiatzak 15, 18:00etan

HAUR HEZKUNTZAKO GOI MAILAKO ZIKLOA

Ate Irekiak: Maiatzak 14, 18:00etan

